

+ **puntuak**
10000

Josu Waliñorekin,
Puntueus-en
arrakastaz

Saiolan:
ekintzailatza
hauspotzen



KEZKATUTA ARLABANGO ERREPIDEAREN EGOERAZ

Alderik aldeko zuloak eta maldak, partxeak eta pitzadurak daude errepidearen erdi-erdian, hainbat tokitan / 2






Arlabango errepidearen egoera erakusten duten hainbat argazki. Horieta batean, Markel Familiar ziklista agertzen da: duela gutxi erorikoa izan zuen han. ARGAZKIAK: XABIER URZELAI

Mondragon-en alde berriro ere

Ordainduk eta Eskuratuk Mondragon taldearen aurkako auzi eskearen errekurtsioan, justiziak berriro eman dio arrazoa korporazioari / 4

Victoriano Etxabe
Hondarribiko parroko
ohia izango da
Argarateren ordezkoa
Arrasaten / 10

SINADURAK

	MIKEL MUXIKA / 6		MIGUEL LAZPIUR / 26
	GAIZKA ERAÑA / 9		ANDER ETXEBERRIA / 48

MERKEALDIA

Zatoz eta aprobeitza itzazu
VARILUX LENTEETAN
ditugun prezio paregabeak

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE
Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com

Jar ezazu zure autoa puntu-puntu eta ondo pasa oporrak

Bateria, argiztapena, aire girotua, iragazkiak, balaztak, pneumatikoak, olio nibelak...



RENAULT
Passion for life

AUTOBERRI S.L.
San Andrés Auzoa, 5 Arrasate
Tel.: 943 71 24 72 • www.autoberri.com
E-maila: autoberri@red.renault.es

Renault Minutua: mantentze-lanak, pneumatikoak, ITV aurrekoa, eta abar.
Mekanika, karrozeria, karrozeria azkarra.



CHAPIME TAILERRAK
Debagoieneko Citroën zerbitzu ofiziala



TXAPIME AUTOAK
Kia zerbitzu tekniko ofiziala Arrasaten

30 urte baino gehiagoko esperientzia
Abuztu guztian zabalik!

San Andrés auzoa 5
20500 Arrasate




BERGARA
AUTOAREN KRISTALDEGA / LARRUKA BARRIENDUAREN INSTALAZIOA

25 URTE ZUREKIN

943763609 / 674365742
desacristalbergara@gmail.com
www.desacristal.com

CRISTALBOX



BERGARA
PNEUMATIKOAK

- Pneumatikoak
- Olio aldaketak
- Mekanika azkarra

Leizeaga 1B BERGARA - Tel.: 943 76 36 27
bergarapneumatikoak@gmail.com | www.bergarapneumatikoak.com

Murillo Garajea 

Leizeaga 4 • 943 76 13 84 • Bergara
www.eurotaller.com/taller/311/garaje-murillo



T. Blanco

Mekanika
Elektrizitatea
Mota guztietako pneumatikoak

NISSAN Erakusketa eta salmenta:
Amillaga 22, BERGARA • Tel.: 943 76 17 35


Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70






Salmenta eta salmenta osteko zerbitzu osoa



GALLASTEGI MOTORSPORT
APR / VAGSPEED GIPUZKOA



Mekanika orokorra.
Elektronikan adituak
Diagnosi zerbitzuak
Automozioko aholkularitza.

reprogramazioko etxeen banatzaile ofiziala.

Markulete Industrialdea
Telleria 4, 5 pab. Arrasate
943 79 73 58 / 670 79 73 58



OPEL
OPEL ZERBITZU OFIZIALA



Salmenta
Mekanika
Elektrizitatea
Pneumatikoak

San Andrés 10 D • Tf.: 943 77 30 10

Eskaintza handiak Km 0 eta bigarren eskuko autoetan!

GARAJE BERRIA
MULTIMARKA

Mekanika, elektrizitatea, karrozeria eta pneumatikoak
Amillaga 49 • 943 76 22 43 • Bergara
forzberria@telefonica.net • www.garajeberria.com • garajeberria@gmail.com



CITROËN
ION AUTOAK

Mekanika • Karrozeria • Pneumatikoak • Garabi zerbitzua


Amillaga 36
Bergara
Tel.: 943 76 47 49
automovilesion@hotmail.com



Ibabe
G A R A J E A

Gesalibar auzoa 31
Tel.: 943 79 99 61
Faxa: 943 79 13 90

TXAPA, PINTURA ETA MEKANIKA



ALMACENES LASCAR

GASOIL BANAKETA
OLIOAK (REPSOL)
OLIO ALDAKETAK
PNEUMATIKOAK ETA
GARBIKETAK

a.laskar@laskar.es • www.laskar.es
Amillaga 32 • 943 76 10 38 / 943 76 18 11

Ziklistak beldur dira Arlabanen

Arlabango errepidearen egoera "negargarria" dela ohartarazi dute bailarako hainbat ziklistak; Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, azaldu du "oso aurreratuta" duten azterketa geologiko bat egiten ari direla eta hori bukatzean erabakiko dutela zer egin

Eneko Azurmendi ESKORIATZA

Txirrindulariek diote "egunero arazoa" dela. "Kamioi, auto, motor eta bizikleta asko ibiltzen dira gora eta behera, eta behin pasatzea besterik ez dago ikus-teko errepidearen egoera negargarria dela. Alderik aldeko zuloak eta maldak, partxeak, pitzadurak errepidearen erdi-erdian, eta abar", dio Jon Zuloagak. Markel Familiarrek gaineratu du leku askotan ezin dela zuloa saihestu, ez ezkerretik, ez eskuinetik. "Zuloaren gainetik pasatu behar duzu. Entrenatzeko leku aproposa da, berez, baina, errepidearen egoera ikusita, nahi baino gutxiago pasatu behar izaten dugu hemendik".

Dorletako Ama Txirrindularien Elkarteko kide Joserra Agirreurretak ere bat egin du horrekin. "Aspaldi honetan utzita dago errepidea, eta, negargarri egoteaz gain, arriskutsu ere badago bizikletan zein motorrean doazentzako. Txirrindularitzaren ikuspuntutik, pena da hainbeste txirrindulari dabilen errepide bat horrela ikustea, zuloz beteta, eta erabat utzita", dio.

Hainbat istripu

Txirrindulariek azaldu dutenez, errepidearen egoera txarrak hainbat istripu eragin ditu. "Markel Familiarrena da azkena, baina badakigu beste hainbat txirrindulari ere erori izan direla behin baino gehiagotan, baita motor gidariak ere", adierazi du Zuloagak.

FORU ALDUNDIAK DIO LERRADURA HANDI BATEK ERAGITEN DUELA ERREPIDEA OKERTZEA



Arlabango errepidean, zuloa tapatzeko jarritako partxeetako bat. XABIER URZELAI

Horrekin lotuta, Agirreurretak kezka azaldu du uztailearen 23an egitekoak diren afizionatu mailako lasterketa dela eta. "Guk Arlabandik egiten dugu jaitsiera. 80 kilometro orduko inguru ere hartu ditzakete txirrindulariek. Beraz, imajinatu ze arrisku dagoen istripuren bat gertatzeko eta istripu hori arriskutsua izateko", dio.

"Trafikoa ez da arindu"

Autobidea egin zutenean, bazi-rudien Arlabango trafikoa murriztu egingo zela eta bizikletan ibiltzeko aproposa izango zela. Hala ere, txirrindularien esanetan, trafikoa ez da arindu, "lehen-go bera" da, eta oso urte gutxitan "zeharo" hondatu da errepidea. "Ibilgailu pisutsuei autobidea garesti ateratzen zaie, eta, Arrasatek Gasteizera joateko, adibidez, nahiago izaten dute Arlabandik joan, nahiz eta denbora gehiago behar izan".

Hori dela eta, Diputazioari errepidea konpontzeko eskaera egin diote. "Oso egingarria da hau konpontzea, obrek irauten duten bitartean badagoelako alternatiba, Gatzagatik edo autobidetik joanda, eta hori ulertuko genuke. Baina ez duguna ulertzen da hiru errepide egon, eta trafiko gehien daukan errepidean ezer ez egitea".

Azterketa geologikoa

Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako diputatuak azaldu

duenez, mendiko lerradura handi batek eragiten du errepidearen egoera okertzea, eta, horri konponbidea eman nahian, azterketa geologiko bat egiten ari direla dio. "Nahiko aurreratuta daukagu azterketa hori, eta bukatzean ikusi beharko dugu ze plangintza egin eta ze neurri hartu daitezkeen. Agian, konponketa partzial bat egin genezake, edo osoa. Baina azterketa bukatzean ikusiko dugu nola egin genezakeen eta zenbat denboran. Badakit lerradura hori goitik behera konpontzea oso garestia izango dela, milioiak izango direla, baina, beharbada, plangintza bat egin genezake".

Udal gobernuetan hizpide

Eskoriatzako EH Bilduk, azken osoko bilkuran, errepidea konpontzeko Foru Aldundiari bideratzeko eskaera egin zuen mozio bidez. EAJko ordezkariak, honen aurrean, adierazi zuten mozioa "harriduraz" jaso zutela, oraindik batzordeak eratu barik egonda. Azaldu zuten aurrez adostu barik egonda ez zutela onartuko, eta mozioak ez zuten aurrera egin. Hala ere, gaia lehenengo batzorde bileran landuko zutela adierazi zuten.

Juanito Bengoa Leintz Gatzagako alkateak, bestalde, azaldu du badutela Diputazioarekin hitz egiteko asmoa. "Eskoriatzako Udal Gobernuarekin egongo gara, eta ea eskaera bateratua egiteko aukerarik daukagun".

Markel Familiarren istripua

Duela gutxi, Markel Familiar gazte arrasatearrak istripua izan zuen Arlaban mendateko bihurgune batean. Hala ere, bera ez da ezertaz gogoratzen, ez istripuaren aurretik, ezta ondoren ere. "Gogoratzen dudak bakarra da etxetik atera nintzela, eta ospitalean esnatu nintzela. Ertzaintzaren atestatuagatik bakarrik dakit istripua nola gertatu zen", dio.

Aurpegiko hiru hezur apurtu zituen istripuaren ondorioz —betzuloa eta masailbo-hezurra

bi aldetik—, eta askotariko traumatismoak izan zituen gorputz guztian: sorbaldan, belaunean, eta abar.

Orain bizikleta hartzen duenean beldurrekin joaten dela azaldu du, eta ez dela lehenengo lasaitasunarekin joaten. "Gertatutakoa hor dago oraindik, nire buruan. Hau gainditzeko, ez dakit zenbat, baina denbora bat beharko dut", adierazi du.



Istripuaren tokia. X.U.

Justiziak, arrazoi Mondragon-i

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak Mondragon absolbitu du, Bergarako epaitegiaren preskripzioa berretsiz. Ordainduk eta Eskuratuk salatutako engainurik ez zela egon ebatzi du. Epaia martitzenean eman du

Amaia Zabala Tolosa ARRASATE

Bi urteren ondoren etorri da erantzuna; Auzitegiak osorik baztertu du Ordainduk planteatutako errekurtsioa eta Bergarako 1. Epaitegiaren epaian hautemandako preskripzioa baieztatu du. Era berean, auzi-jartzaileek aurrez kooperatibaren finantza egoerari buruzko informazioa bazutela adierazi du epaitegiak.

2018ko uztailaren 27an, Bergarako 1. Epaitegiak atzera bota zuen Ordaindu eta Eskuratu elkarteek Mondragon korporazioaren aurkako auzi eskea.

Urte bereko irailaren 7an erabaki zuten Ordaindu eta Eskuratu elkarteetako kideek he-

gitea aurkeztea, eta martitzenean eman da aditzera Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren epaia: Mondragonen alde egin du Lurralde Auzitegiak, eta engainurik ez zela egon esan.

Epaia iritzi kontrajarriak sorrarazi ditu: batetik, Mondragon korporazioa epaiarekin "pozik" azaldu da; bestetik, ordea, Ordainduk eta Eskuratu esan dute epaitegien "sentsibilitate falta" erakusten duela.

"Argudioak berretsiz"

Mondragonek "oso positiboki" baloratu du epai berria, "hasieratik defendatutako argudioak berretsiz" egin direla iritzita, eta honako hau adierazi du: "Mon-

dragonek ez zituen auzi-jartzai-leak engainatu, kooperatibak autonomoak eta burujabeak direlako eta beraien ardura etorkizuneko erabakiak hartzea delako, beste inoren eraginik izan gabe".

Ordaindu eta Eskuratu

Atsekabetuta agertu dira, bestetik, Ordaindu eta Eskuratu epaia jakin ostean, eta "ezinegona eta haserrea" adierazi dute.

Esan dutenez, Mondragon Taldeak "engainatu" duen kolektibo batekiko "sentsibilitaterik eza" erakutsi dute epaitegiek.

"Mondragon korporazioagatik dena eman genuen guztiok, eta orain botata utzi gaitu, sistema



luz, maiatzean, Bergarako epaitegiaren izandako epaiketaren irudia. GOIENA

judizialaren babesarekin: gure aurrezkiak bi enpresatan mantentzeko engainatu gintuzten, eta bien bitartean zuzendariek beraien inbertsioak atera zituzten inolako oztoporik gabe", salatu dute bi elkarteek.

Ordainduko eta Eskuratu kideek datozen egunetan egingo dituzten batzarretan erabakiko dute Auzitegi Nagusian erre-

kurtsioa aurkeztu nahi duten edo ez.

Horrekin lotuta, bi elkarteetako zuzendaritzek azpimarratu dute Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren epaiak "kontraesan nabarmenak" dituela eta "ekin-tza judiziala preskribatuta ez zegoela baieztatzen duen dokumentazio guztia baztertu" egin duela.



Berriro berdin

ELENA LAKA ABOKATUA

"Ikusiko dugu Lurralde Auzitegiak mamira egiten duen ala, litekeena den moduan, berriro, melaia zabaltzeko lagatzen duen". Duela urtebete, Bergarako Lehen Auzialdiko 3. Epaitegiak Mondragon auzian epaia eman zuenean, bi puntu iragarri genituen: bata, ziur aski helegitea egongo zela; eta bigarrena, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak, preskripzioari eutsi, eta mamiari heldu barik ebatziko zuela. Bi puztarri; bietan asmatu genuen.

Helegitea ezetsi eta epaia berretsiz

Fagorreko bazkide izandako 903 pertsonaren erreklamazioa biltzen zuen alderdi auzi-jartzaileak, Bergarako epaiarekin konforme ez, eta helegitea jarri zuen Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren. Ondoren, Auzitegiak Bigarren Sekzioak urtebete, bost magistratu eta 68 orriko epaia behar izan ditu Bergarakoaren antzeko ondorioa iristeko: Fagorreko

langileek kontratuz kanpoko erantzukizunaren oinarritutako demanda, kaltea jaso eta urtebete baino beranduago aurkeztu zutela epaitegiaren, eta, beraz, legeak jartzen duen urtebeteko epea gaindituta, auzia preskribatuta zegoela. Eta preskribatuta dagoenez, auzia zuzenean ezetsi egiten dela eta, beraz, epaiak ez duela mamia aztertzen.

Kaleko agerraldiak

Fagorreko abokatuak, Bergarako juizioaren azken ondorioetan egin zuen bezala, saiatu da apelazio helegitean argudiatzen preskripzio epe hori eten egin zela kaltetuen plataformak kalean egin zituen mobilizazio, pankarta eta manifestazio bitartez. Probintzia Auzitegiak, baina, baztertu egiten du argudio hori, horretarako zenbait arrazoi emanez: adierazten du agerraldi horiek, batez ere hasieran, lan arloko mobilizazioak zirela,

ez kalte-ordaina jasotzeko eskubidea aldarrikatzeko agerraldiak. Eransten du ez dela zehaztu agerraldi horiek zeintzuk ziren, abiatu zituztenak auzi-jartzaileak ziren zehatz-mehatz, eta horien hartzailea Mondragon Taldea ote zen preskripzioa eteteko helburuarekin. Dio Probintzia Auzitegiak, zuzenbidean preskripzioa apurtu ahal izateko, zehaztu bako agerraldi batzuk baino gehiago, komunikazio zehatzak behar direla, eta, beraz, ez du onartzen preskripzioa puskatu zenik ekin-tza horiekin.

Kostak ere, erdi bana

Bigarren puntu garrantzitsu batean ere berresten du epaiak Lehen Auzialdiko ebazpena: juizioaren kostak ez dizkio alderdi galtzaileari leporatzen, azterketa juridiko bat behar izan dela irizten baitio preskripzioa noiztik hasi behar zen kontatzen ebazteko. Beraz, azterketa hori

beharrezko izan denez, Auzitegiak ez du ondorioztatzen ausarkeriarik egon zenik auzia jartzerakoan, eta ez du auzibidearen kostuak ordaintzeko kondenarik egiten; azpimarratzeko puntua, kontuan baldin badaukagu auziaren munta 47 milioitik gorakoa dela, eta kostuak muntaren araberakoak izaten direla.

Engainurik eta zabarkeriarik egon zen?

Probintzia Auzitegiaren epaiaren ostean, ikusteke eta erabakitzeke geratu da, berriro ere, auziaren benetako mamia; hain zuzen, Fagorreko auzi-jartzaileen erreklamazioaren muina eta zergatia: Mondragon Taldeak engainuz edo zabarkeriaz jokatu ote zuen Fagorreko bazkideekiko, hauek beraien aurrezkiak batera arriskurik ez zeukatela sinets zezaten. Atzera ere, melaia zabaltzeko geratu da... ez bada Fagorreko auzi-jartzaileak Madrilgo Auzitegi Gorenaren aurrean jar dezakeen balizko errekurtsio batek kontrakoa ikusten ez badu. Oraingoan ere ausartuko gara iragarlearena egiten: nekeza. Hortaz, litekeena da auzia Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak ebatzi moduan geratzea.

Oiarbide eta Romero, Foru Gobernu berrian

Foru Aldundiak ekin dio 2019-2023 legealdi berriari. Markel Olano diputatu nagusia izango da buru eta berarekin batera Foru Gobernua osatuko duten bederatzia diputatuen artean Aintzane Oiarbide (EAJ) eta Rafaela Romero (PSE-EE) daude

Amaia Zabala Tolosa ARRASATE

Astelehenean egin zuten Gipuzkoako Foru Gobernu berria eratzeko batzarra. Bertan, EAJ-PNVk eta PSE-EEK bederatzia diputatuak aurkeztu zituzten, eta, kargua hartzearekin batera, hori irudikatzen duen lepokoa jaso zuten Markel Olano diputatu nagusiaren eskutik.

Bertan, aurreko agintaldian hasitako bidea jarraituko dutela eta hori kontsolidatuko dutela adierazi zuen Olanok. Era berean, gaineratu zuen gipuzkoar guztien "ongizatea eta solidaritatea" berrmatuko dutela, eta, horretarako, behar den aberastasuna sustatuko dutela enpre-



Aintzane Oiarbide eta Rafaela Romero. GOIENA

sen eta ekonomiaren bitartez. Herritarrengana gerturatzea izango dela Gobernu berriaren tresna ere aipatu zuen. Amaitzeko, lanari ekiteko ilusioz daudela adierazi zuen.

Hala, Foru Gobernu berrian egongo dira Aintzane Oiarbide (EAJ) eta Rafaela Romero (PSE-EE) diputatuak, biak ere Debagoienarekin lotura zuzena dutenak. Oiarbide, Bergarako Udalean EAJren alkategai eta zinegotzi izana. Bestalde, maiztzeke udal hauteskundeetan Elgetako Udalerako EAJren alkategaia izan zen eta egun, bertako zinegotzia da. Romero, berriz, Arrasateko Udalean alderdi sozialistaren zinegotzia izana da.

Aintzane Oiarbide, diputatu

Aintzane Oiarbidek Bide Azpiegituretako Departamentuaren kudeaketa hartuko du bere gain, beste behin. Diputatuaren esanetan, "egindako lanaren errekonozimendua da", eta gaineratu du "ilusioz" helduko diola karguari: "Diputatu nagusiak beste lau urterako nigan konfiantza jartzeak poztu egiten

nau. Lau urte hauetan egindako lanaren errekonozimendua, niretzat, oso garrantzitsua da eta oraindik Bide Azpiegituretan ditudan erronkei ilusioz eta gozoz ekingo diet", dio Oiarbidek.

Rafaela Romero ere, diputatu

Rafaela Romerok, berriz, Mari-sol Garmendiaren lekukoa hartuko du Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuan: "Ilusio handiz ekiten diot etapa berri honi. Nire erantzukizuna izango da Gipuzkoako garraio publikoaren erabilera sustatzen jarraitzea eta lurralde osoan baliabide berberak berrmatzea, betiere, kontuan hartuta genero ikuspegia foru politketan. Ahalegin guztiak egingo ditut gipuzkoar orok Gipuzkoan dauzkagun bitartekotara modu erosoan eta efizientean iristeko aukera izan dezaten. Halaber, garrantzia eman nahi diot garraio jasangarri eta osasungarriari; bidegorriei eta bizikletei, esaterako. Antolaketa-aren atalean, Pasaialdea eta Gipuzkoan degradatuta dauden beste gune batzuk biziberritu nahi ditut".

Oñati gestio
heziketa

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Matrikulazioa

Uztailaren 11tik 17ra

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"> •Administrazioa eta Finantzak •Zuzendaritza Idazkaritza •Salmenta Kudeaketa 	<ul style="list-style-type: none"> •Automatizazioa eta Robotika Industrialia •Sareko Informatika Sistemen Administrazioa •Fabrikazio Mekanikoko Diseinua •Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa •Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



ZABALIK

MIKEL MUXIKA

Borroken borroka

Bakoitzak bere txokoa du munduan. Bere txoko *pribatu* eta *berezia*. Bakarra.

Txoko horretatik hautua egin dezake: antzerako –edo desberdin– izan daitezkeen txokoak hobetzeko mugitu, edo bere txokoaz bakarrik arduratu. Betiere, bien arteko punturen batean gelditu daiteke, noski.

Txoko honek inguruko besteekin kontaktua du derrigor. Gainera, inguruko hauen artean norberarentzat garrantzitsuak izan edo gorroto dituenak egon daitezke eta horrek eragin zuzena du hautu horretan. Txoko hauen arteko antzekotasunak bilatu eta ildo komun bat lantzean, hobetzeko hautu kolektibo hori aldarrikapen edo borroka bihurtzen da. Badaude gaur egun gizartean ezagunak diren honelako hainbat mugimendu: feminismoa, abertzaletasuna, LGBTI+, komunismoa, ekologismoa...

Halere, nahiko xelebreak diruditen hainbat gatazka eratorri dira mugimendu hauen arteko erlazioetatik. Hauetako asko talde baten borrokarekiko atxikipen

itsuaren eskarien ondorioz agertzen direla dirudi, non kritika egitea kontra egotea moduan interpretatzen den.

Argi dago mugimendu bakoitzak bere lehentasunak dituela, baina ez al dira

EUREN DISKURTSOAN ARERIOA BALDIN BADA, NOLA IZANGO DA LAGUNTZAILE?

kompatibleak euren artean?

Mugimendu bateko partaide batzuek kide ez den edonor arerio gisa dutenean, zaila da hauek euren borrokara atxikimendua eskatzea ulertzea. Euren diskurtsoan arerioa baldin bada, nola izango da laguntzaile? Antzekotasunak eta elkartasuna bilatu beharrean *berezitasunak* lantzean, aliatuak lortu beharrean arerioak sortu nahi ote dituzten dirudi. Bereziarena izatearen lehiaketak saririk ba al du? Helburua talde baten egoera hobetzea bada, beharrezkoa al da beste batzuk gutxiestea?

Zergatik eskatzen dute batzuek euren aldarrikapenekiko sumisioa, borroken arteko antzekotasunak landu eta kolaborazioak bilatu ordez? Ez al lituzkete mugimenduko kideek eurek kanporatu behar kaltegarri diruditen ildo horiek?

Borroken borrokan partaide denak galtzaile. Nor irabazle?

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Ohiturei bueltaka

TXERRA RODRIGUEZ

HTTPS://LABUR.EUS/1B1XE
'ARGIA'-N ARGITARATUA

Hizkuntza ohiturak gora, hizkuntza ohiturak behera gabiltza. Gainera, bigarren Euskaraldia ere badator eta ahobizi eta belarriprestez gain, ariguneak izango ditugu bigarren honetan. Lautadan egingo dute simulakroa udazkenean eta hark zer ematen duen zain gaude askotxo.

Baina zer da, ba, ohiturak aldatzea? Azken finean, honek eskatzen du dislokazio linguistiko pertsonala, hau da, orain arte beste hizkuntza batean

egiten zenuena euskaraz egiten hastea. Eta, horretarako, zure buruari aldatzeko baimena eman behar diozu, hori da lehendabiziko pausoa. Hau da, idatzitako gidoitik ihes egitea, hain zuzen ere.

Izan ere, zeure buruari hizkuntza plangintza egitea eskatzen du horrek. Eta zer da hizkuntza plangintza ba? Hizkuntza plangintzak hizkuntza errealitate bat aldatzea du helburu eta aldatzea hori metodo baten bidez, hau da, era sistematizatu eta iraunkor baten bidez egiten du. Hortaz, zeure buruari baimena emateaz gain, era sistematizatu eta iraunkor

baten bidez egin behar diozu aurre parean datorkizun egoera berriari.

Baina, kontuz, hau ez da bakarrik "gudu-zelaia", goza-zelaia ere izan behar du, arrakasta lortuko badugu. Hau da, bilatu behar ditugu aldatzea horietan gozatzeko moduko uneak eta gunak, pertsonak eta egoerak. Bestela, seguruenik, alferrikakoak izango dira ohitura aldatzea horiek.

(*Goza-zelaia* berba eta kontzeptua Uxue Alberdiren *Kontrako ezta* liburuan aurkitu dut).

Post gehiago 8. orrialdean.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amalia Mundiñano,
Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Berezibar,
Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldiakari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Hizkuntza ohiturak taldean, 'ariguneetan', aldatzera goaz"

ARRATE ILLARO EUSKARALDIKO KOORDINATZAILEA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE
Lehen edizioaren arrakastaren ostean, bigarren Euskaraldia dator. 2020ko udazkenean egingo da ariketa soziologikoa eta 15 egunekoa izango da. Badira berrikuntzak. Arrate Illarok azaldu ditu Goiena telebistako HD saioan.

Zergatik ikusi duzue bigarren Euskaraldia egin beharra?

Hizkuntza ohiturak aldatzea 11 eguneko kontua baino askoz epe luzeagoko kontua da. Aurreikusten genuen beste edizio batzuen beharra eta herri batzordeek ere horrela berretsi zuten. Orain, beste urrats batzuk egin nahi ditugu, progresiboki, hizkuntza ohiturak aldatzeko.

Lehen edizio hartan, zertan asmatu zen?

Lankidetzan arituta urrats sendoak egin ziren eta herrietako batzordeak izan ziren oinarri ezinbestekoak. Lortu genuen jende askok ohiturak aldatzea eta beste askok gogoeta egitea. Hobetzekoen artean, *ahobizi*



Arrate Illaro Euskaraldiko koordinatzailea. GOIENA

eta *belarriprest* rolak ulergarriagoak egingo ditugu bigarren honetan. Bestetik, lautik hiru *ahobizi* izan ziren eta hori ere orekatu egin nahiko genuke. Biak behar ditugu; biak dira zilegi.

Noiz egingo da bigarren ariketa?

Datorren urteko azaroaren 20tik abenduaren 4ra arte, 15 egunez, ostiraletik ostiralera. **Entitateak ere batu gura dituzue ekimenera... Entitateez ari garela, zertaz ari gara?**


Gazte batzordeak; kirol, kultur edota merkatari elkarteak; erakunde publikoetako langileak... 16 urtetik gorako mota guztietako entitateak. Hizkuntza ohiturak ohiko taldeetan ere aldatzea nahiko genuke. *Ariguneak* izango dira horiek. Pertsonak osatutako guneak izango dira. Saltokietako kutzazainak ere izan daitezke *ariguneak*. Bermatu nahi da une oro jendeak euskaraz jardun ahal izatea multzo horietan. **Hasi zarete lanean taldeekin.** Bai; lehen edizioan sustatzaile izan zirenekin. Ekarpene asko jaso ditugu; harrera oso ona izan dugu. Herri batzordeak aktibatuko dira orain. **Arlo digitalen aktiboago izan nahi duzue.**

Ahozko harremana da oinarria, baina gaur egun sare sozialetan etengabe dira harremanak, eta, askotan, ez dakizu noiz ari zaren ahoz edo idatziz. Aditu batzuekin ari gara kaleko praktikak mundu digitalera ere eramateko. **Proba pilotuak ere egiten ari zarete?**

Arigune-ena berria da, eta, horregatik, simulakroak egingo ditugu: Arabako lautadan, Intxaurren eta baita Bizkaiko entitate handi batean ere.

HAU BE BADOGU!

Carola Rackete-k babes zabala jaso du sarean



Iragan domekan, *SeaWatch 3* itsasontziko kapitain Carola Rackete alemaniarra atxilotu zuten, Lampedusan 40 migratzaileekin lur hartu ostean, eta eguaztenean aske utzi zuen Italiako justiziak:

@aneirazabal: "Duela urtebete, Maltan ezagutu nuen #CarolaRackete. #SeaWatch3 ontzian Mediterraneora irteteko prest zegoen. 'Etorkizunean ez dut neure buruaz lotsa sentitu nahi', esan zidan orduan. Gaur harro sentitu beharko litzateke. Bai horixe!".

Hertzainak taldearen doinuak Euskaldunan

Garik eta Josu Zabalak Bilboko Euskalduna jauregian emango dituzten bi kontzertuetarako sarrerak azkar batean agortu egin ziren asteazkenean:

@iPatxi: "Inon baino alaiagoa izanen da #Hertzainak".

@Euskalduna_eus: "Sold Out! Agortu dira Hertzainak taldeak #Euskalduna Jauregian emango dituen bi kontzertuetarako sarrerak. 'Inon baino alaiagoa izanen da' #Hertzainak".

Facebook, Instagram eta Whatsapp, erorita

Ez da aurten gertatzen den lehen aldia, eta oraingoan ere milioika erabiltzailek izan zituzten Facebookek kudeatzen dituen sare sozialetan arazoak. Eguaztenean, orduak egon ziren erorita sare hauek:

@teketen: "Facebook, Instagram eta Whatsapp erorita daude. Internet zentralizatzaile bat apustu bakar moduan izateak, sareko eduki asko mugatu edo desagerrarazi ditzake egun bakar batean".

ITURRI ONETIK

Oñatz dantza taldea, Poloniara

Poloniako Swiat Pod Kyczera jaialdian hartuko du parte datorren astean Oñatik Oñatz dantza taldeak: 30 lagun, dantzariak eta txistulariak. Hainbat herritan bost dantza saio egingo dituzte; azkena, Eslovakian. Saio horietan, Euskal Herriko hainbat dantza egingo dituzte: Gipuzkoako ezpata dantza, Lekeitioko kaxarranka eta Nafarroako kortes; Oñatik Corpus dantzak birritan egingo dituzte. Herrialde askotako dantza taldeek hartuko dute parte jaialdian. Euskal Herritik, Gasteizko beste talde batek ere bai.

ALBISTE IZAN ZEN

2009-07-02

Bestseller bildumaren egilea, Arrasaten

Haitzulo-hartzaren klana liburuaren egilea, Jean M. Auel estatubatuarra, Arrasaten izan zen -1980an argitaratu zenetik hona, milioika ale saldu dira-. Alvaro Arrizabalaga arkeologoarekin bisitatu zuen Lezetxikiko kobazuloa. Penintsulako hainbat haitzulo bisitatu zituen; adibidez, Garagartzakoa. Ospetsuen liburuan sinatu zuen eta *Arrasate iruditan* liburua oparitu zion Oihana Aranburu zinegotziak.



HANDIK ETA HEMENDIK

Mespretxua, dosi txikit**MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN**

HTTPS://LABUR.EUS/34RM4

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Sargori dago, eta 17 urteko gazte bat Miarritzeko lizeo batera doa, izerditan, nerbioak airean.

Buruz ikasi ditu –edo beharko zituzkeen Albert Camusen *L'étranger* eleberria, Charles Baudelaireren *Les Fleurs du Mal* poesia bilduma, Voltaireren *Candide ou l'optimisme* narrazio ironikoa, Mallarméren poemak...

Egin du ahozko azterketa, eta gustura aterada, ongi defendatu duelako berea.

Zortea izan du: irakasleak ez dio deus txarrik erran soinean zeraman *Baxoa Euskaraz!* kamisetagatik.

Are, zoriondu egin du frantsesa haren ama hizkuntza ez izanik ere egin duen ahaleginagatik.

Joan den asteko baxoko frantseseko ahozko azterketako edozein gazte euskaldun izan zitekeen hori; nik ere ikasi nituen 16 urterekin horiek guztiak, eta pozik nago: perla ederrak daude literatura frantsesean; ez didate trabarik egiten burmuinean.

Kontua da lizeotik aterata oraindik ez nituela sekula irakurriak Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua*, Arantxa

Urretabizkaiaren *Zergatik Panpox*, Jon Mirandereren *Haur besoetakoa*, Gabriel Arestiren poemak edo Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako*.

Ez horiek, ezta berriagorik ere.

Nire kabuz deskubritu eta irakurri behar izan nituen, irakurtzea asko gustatzen zaidalako, eta burugogorkeriaz ere bai.

Bertze anitzek ez dituzte sekula irakurriko, baxorako euskarako proba gairatzen eskatzen dizuten bakarra testu ezinago sinpleago bat irakurri eta "nor da protagonista?" gisako galderei erantzutea baita.

Eta hori, bizitza osoan euskaraz ikasi duen batentzat, aurpegira irri egitea da.

Gure irakasle batek erraten zuen moduan, guk baxoa euskaraz ez, guk gure baxoa nahi dugu, edo bertzela, baxorik ez.

Eta gure hizkuntzaren eta kulturaren balioa azpimarratuko duen hezkuntza eta ebaluazio sistema bat.

Hala egiten digu Frantziak egunero mespretxu; haren handitasuna erakutsiaz, eta gurea bazterrera eramanez; dosi txikit.

Genitalen depilazioa**JON ORDOÑEZ GARMENDIA**

HTTPS://LABUR.EUS/H4CVC

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Zerk bultzatzen du 14 urteko neska bat genitalak erabat depilatzerara?

Ane Ortiz sexologoak joan den astean *Berria*-n eman zuen datu batean dago galdera horren erantzunaren oinarria: batez beste, 8 urterekin hasten dira haurrak pornografia kontsumitzen, eta, sexu heziketarekin lagundu ezean, haur horrek ez du jakingo hori gezurra dela, sexu harremanek gutxi dutela hor ikusten den

horretatik, eta sexualitatea hori baino askoz gehiago den mundu bat dela.

Gaur egun, inoiz baino hedatuago eta eskurago dago pornografia gizaratean.

Zoritxarrez, ordea, hori ez da islatu eredu aniztasunean: eredu bat nagusitzen da, sexu harremanetan emakumeak gizonen nahiak betetzen jartzen dituen, desira zer den eta zer izan behar duen esaten duena, emakumeen gorputza kontrolatzen duena.

Naturala den zerbaiten inguruan, emakumeen genitaletako ilea, mutilek atsekabea agertzeraino.

Sexu heziketa zein beharrezkoa den erakusten dute pornografia eredu horren ondorioz genitalak zabalduak ikuskerak, emakumerik gazteenengan duen eraginak, eta erabat depilatzeak izan ditzakeen ondorioak askorentzat ezezagunak izateak.

Lehen baino are eta beharrezkoagoa da.

Ez soilik ikastetxeetan, baita etxean ere, nerabearoa iritsi arte itxaron gabe.

Sexualitatea naturala delako, eta ilerik gabeko genitalak, ez.

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

Post gehiago 6. orrialdean.

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



Kiroldegia eta igogailuak, Gobernuaren lehentasun

Maria Ubarretxenak eta Oscar Garciak 2019-2023 agintaldirako Arrasateko Udal Gobernu eraketaren berri eman dute. Akordioaren helburua "egonkortasuna bermatzea" eta aurreko agintaldian hasitako proiektuei "jarraipena ematea" direla esan dute

Amaia Zabala Tolosa ARRASATE

Maria Ubarretxenak EAJren izenean eta Oscar Garciak PSE-EEren izenean 2019-2023 agintaldirako Arrasateko Udal Gobernu eraketaren berri eman zuten atzo goizean.

Maiatzeko udal hauteskunderen EAJk bederatziz zinegotzi lortu zituen –lehen baino bat gehiago–. Alderdi sozialistak, berriz, hiru, lehen bezala. Agintaldi berrirako, bi taldeek lortutako akordioaren berri eman zuten alkateak: "Arrasatek behar dituen proiektuak zeintzuk diren aztertu dugu, eta ondoren, uzartze lan bat egin dugu. Horri esker, akordioa lortu dugu alderdi sozialistarekin, hainbat proiektutan bat gatzelako eta uste dugulako herriak behar dituen proiektuak direla adostu ditugunak".

Hain zuzen ere, 2019-2023 agintaldirako proiektu garrantzitsuenak zerrendatu zituen atzoko agerraldian: "Kiroldegi berria, mugikortasuna sustatzea –batez ere, mugikortasun bertikala; alegia, igogailuak– eta auzoei garrantzia ematea eta horietan inbertitzen jarraitzea, besteak beste". Ekobulebarra, enplegua eta bidegorria ere agintaldi berriaren lehentasunak izango dituzten proiektuak izango dira, Uba-



Maria Ubarretxena eta Oscar Garcia, akordioa sinatu duten unean. AMAIA ZABALA

rretxenaren esanetan. Bestalde, droga-menpekotasuna, segurtasuna eta garbitasuna ere Gobernu berriaren lehentasunak izango direla azpimarratu zuen Arrasateko alkateak.

Eta amaitzeko, euskarak eta berdintasunak arlo guztietan izango duten garrantzi berezia nabarmendu zuen.

Hamar batzorde

EAJren eta PSE-EEren arteko Udal Gobernu berriak hamar batzorde izango ditu. Zortzi jeltzaileen esku egongo dira: Hiri-

gintza, ingurumena eta mugikortasuna; Garapen Komunitarioa –Gizarte Zerbitzuak eta Gazteria–; Hezkuntza eta enplegua; Kultura eta euskara; Tokiko merkataritza; Barne Antolamendua; Kirola; eta Bizikidetzak eta partaidetza. Sozialistek, berriz, beste bi batzorde hauen ardura izango dute: Obrak, zerbitzuak eta mantentze lanak eta auzoak; eta Berdintasuna.

Batzorde bakoitzeko lehendakariak, berriz, martitzeneko osoko bilkuran jakinaraziko dituzte.



NIRE USTEZ

GAIZKA ERAÑA

'Carpe diem'

Gure amen iztar artetik urten eta mundu hau usainketan hasten garenetik burubako oilluak letxe batetik bestera ibiltzen gara esango neuke. Dana daukou zehaztute eta neurtute: urtiak, hillabetiak, astiak, egunak eta orduak. Programa edo *app* ezberdiñak instalatuta dittuauen programatutako izakixak gare: *lanpostufinkoa 2.2, maitemindu 3.0, ezkondu 2.0, umiakekarri 2.2, ezpotolotu 3.1, onakizen 3.2...*

Programatutako ibilbide honetan, baiñe, batzutan bizi douena pelikula bat ez ete dan galdeketan dutseu geure buruai, izugarri maitte douen pertsona bapatient desagerketan danien kasu. Etorkizunik ez balego letxe bizi biharko geunke bizitza, hemen eta orain gertatzen dana da inportantie. Beste kultura batzutan, egunero jaikitzerakuan eskerrak emuten dutsie Jainkoai edo Jainkuei egun horretan be bizirik dauzelako.

Carpe diem egun bat gehixau gozatzeko gosie da. Saia gaittezen, ba, Horacio poeta erromatarrak esandakue fin-fin beteten: *Carpe diem, quam minimum credula postero* (Orainaz gozatu, etorkizunaz kezkatu barik).

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Txaeta kalean, "beste puntu beltz bat"



Irakurle baten arabera, emakumeen segurtasuna gutxitzen du irudiko hesiak. "Puntu beltz bihurtu du lehendik ere ezkutu samar zegoen gune hau. Orain, beste espaloitik pasatzen naiz".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

arbolapeta


 arrasate
 beinke

Sili Sili
 Martxa eta estilo handiko arropa
 Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
 Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
 Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
 Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
 Kontxi Lazkano - Pedagogoa
 Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa	Arreta goztiarra
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak	Logopedia
Laguntza eskolarrak	Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
 psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 140/18



Horazio Argarate, martitzenean, San Juan Bataiatzailea parrokia kanpoan. XABI GOROSTIDI

Horazio Argarate, Oñatiko parroko irailtik aurrera

Munilla gotzain nagusiak erabaki du parkinson gaixotasunak jota dagoen Joxan Larrañaga ordezkatzea, eta bere ordeiz Victoriano Etxabe etorriko da; herriko fededunak haserre daude, besteak beste, euren iritzia ez dutelako kontuan hartu

Xabi Gorostidi ARRASATE

Oñatiko parroko Joxan Larrañaga parkinson gaixotasunak jota dago, eta ez du bere zereginetan jarraituko. Ordezko bat bilatzeko eskatu zion Gotzaindegiari, eta Munilla gotzain nagusiak Horazio Argarate aukeratu du irailtik aurrera Larrañagaren postua betetzeko; Argaratek baiezkotzeko batekin erantzun dio, "inongo azalpenik eskatu gabe". Aitoritu du "oso gustura" aritu dela hamar urtez Arrasaten, baina apaiz ofizioan lekualdaketak "eguneroko" ogi direla. "Gure patua da" azaldu du.

Argaratek gutuna bidali die eliza komunitateko kideei, erabakiaren berri pertsonalki ema-


teko, eta aldaketak haserre eta tristura eragin ditu fededunen artean. Ez galeragatik bakarrik, baita eurei "ezer kontsultatu gabe" hartu dutelako erabakia.

"Ez dute gure iritzia kontuan hartu. Elizaren alde lan egin bai, baina gero, erabakiak hartzeko gurekin ez kontaktzea ez zaigu ondo iruditzen", adierazi du elizako komunitateko kide Fernando Laspiurrek. Dio ulergaitza egiten zaiela egindako aldaketa horretan Arrasateko parrokoa tartean sartzea. "Arrasatera apaiz berri bat etorri beharko da, eta, gure ustez, zentzuzkoagoa zen hura zuzenean Oñatira bidaltzea eta Horazio Arrasaten mantentzea. Eliza

komunitatea osatzen dugunok oso gustura geunden berarekin, eta bere lanarekin. Esklusio egoera daudenekin, eta, batez ere, etorkinekin, sekulako lana egin du Horaziok. Eta hori guztiari egonkortuta dagoenean aldaketa egitea ez da eraginkorra". Datorren martitzenean, batzarra egingo dute parrokiako komunitateko kideek, gaia aztertzeko eta euren "haserre eta tristura" nola kanalizatu dezaketenen erabakitzeke.

Aldaketari buruzko azalpenak eskatzeko Jose Ignacio Munilla gotzainarekin harremanetan jartzen ahalegindu da GOIENA, baina, gaur-gaurkoz, ez dute erantzunik eman.

Zein iritzi duzu aldaketari buruz?



AGURNE JULDAIN
BIDEAN ELKARTEA

"Zaila izango da bere lanari jarraipena ematea"

"Domekan, haurra bataiatzerakoan, izan nuen aldaketaren berri. Ulergaitza egiten zait Munillak hartu duen erabakia; haserre eta tristura sentiarazi dizkit. Caritas-eko Bidean elkartean egiten dut lan, eta gertutik ezagutzen dut Horaziok egiten duen lana esklusio egoeran dauden pertsonekin. Ez dakit nork ordezkatuko duen, eta ziur datorrena gogo onez etorriko dela. Baina Horazioren bideari jarraipena ematea ez da erraza izango, sekulako lana egin baitu".



JOSE ANTONIO ALTUNA
ARRASATEKO ALKATE OHIA

"Neukan sinesmen apurra galdu dut Munillagatik"

"Ez dago eskubiderik. Munilla horrek egin duenak ez dauka ez hanka, ez buru. Azkenaldian makal nabilen sinesmen aldetik, baina faxista horrek –Munillari erreferentzia eginez– egin duenak neukan sinesmen apurra kendu dit. Neukan apurra Horaziogatik eta Bergoglio aita santuagatik mantendu dut, hein handi batean, baina orain... Horazio oso berezia eta oso sakona da. Momentu honetan, Oñatira bidaltzearena hartzea hankasartzea dela uste dut; benetan, sututa nago".



Victoriano Etxabe. EITB.EUS

Victoriano Etxabe, parroko berria

Zurrumurrua entzuten zen egunotan, Etxabe izan zitekeela Argarate ordezkatu zezakeena, eta eguen goizean hala konfirmatu zion GOIENARI Horazio Argaratek berak. Etxabe Hondarribiko parroko izan da 2018ko irailera arte. Lau urte egin zituen bertan, baina kargua uztea erabaki zuen Alardearen harira, "herriko bizikidetzan emandako atzerapausoagatik".

Arrasateko azken parrokoak

- **Jose Luis Iñarra** oiartzuarra, 1976ko urriaren 2an hil zen.
- **Jabier Etxeberria** marindarra, 5 hilabetez administratzaile izan zen.
- **Jesus Zubillaga** hernaniarra, 1977-1984.
- **Jose Maria Astigarraga** elgoibartarra, 1984-2002.
- **Jenaro Lekuona Luis** bergararra, 2002-2007.
- **Jon Molina** aretxabaletarra, 2007-2010.
- **Horazio Argarate** eibartarra, 2010-2019.

Oharra: Jon Molinaren garaian, Bedoñako eta Uribarri parrokoak kendu ziren, eta Argarateren garaian Gesalibarkoa, Udalakoa eta Garagartzakoa.

Plaza eskuterrez beteko dute, bederatzigarrenez

'Mondrally' festaren beste edizio bat egingo dute asteburu honetan. Festa gaur gauean hasiko dute, Osorik tabernan egingo duten ongietorri jaiarekin; eta bihar, motorrak Herriko Plazan aparkatu ostean, irteeratxoia egingo dute Aramaio aldera

Xabi Gorostidi ARRASATE

Iaz bi eguneko egitaraua lotu ostean, aurten ere formatu bereko Mondrally festa antolatu du Mondraueko Dragoiak Taldeak. Urteik urtera urrunetik etorritako lagun gehiago animatzen ari dira, eta aurten, adibidez, Kataluniatik, Zaragozatik, Segoviatik eta Galiziatik etorritakoek hartuko dute parte. 50 izen emateko muga jarri dute antolatzaileek, eta jada ia beteta dago. "Une honetan, 44 lagun daude izena emanda. Denek ez dute inskripzioa egin, baina badakigu muga betetzetik gertu ibiliko garela", azaldu du Jon Alkorta antolatzaileak.



2018ko Mondrally egunean, eskuter ugari Herriko Plazan. IMANOL SORIANO

Izen emateak 40 eurotan jarri dituzte –egunean bertan 45–, eta barne daude bazkaria, Mondrallyko kamiseta eta baita partxea ere.

Irteera, aurten, Aramaioa

Festa gaur gauean hasiko dute, Osorik tabernan. 23:30ean hasita, Zaragozako Patrik eta Chusek DJ lanak egingo dituzte, eta ostean, DJ Motherfuckerrek hartuko die lekukoa.

Zapatuan 11:00etarako egingo dute hitzordua, Herriko Plazan. Motor dotoreak aparkatuta utzi ostean, garagardo dastaketa izango dute Kajoi Tabernan zain, eta, egarria ase ostean, irteera egingo dute, 12:00 aldera. "Aramaio alderantz joango gara. Etxaguen, Zabola eta Untzillatik pasako gara, eta Aretxabaletatik Arrasatera itzuliko gara".

14:30ean, Udalako Larrinetxe jatetxean bazkari elegantea egingo dute, eta ostean, Dat tabernan jarraituko du festa giroak, *Scoter Jaia* egingo baitute bertan: Lady Pantxineta (Santiago de Compostela), Alfonso T17 (Segovia) eta Gorka (Arrasate) izango dira musika jartzen.

Hilaren 10ean bilera, 'EkainArrasaten' dinamika abiarazteko

11/13 auziaren harira 47 lagunengatik aurkako epaiketa hasiko du Auzitegi Nazionalak, eta horien artean Ekain Zubizarreta dago. Hari babes emateko, *EkainArrasaten* dinamika martxan jarri nahi du herritar talde batek, eta hilaren 10erako batzar irekia antolatu dute –18:30ean, Kulturaten–, ideiak eta ekarpenak batzen hasteko.

OHARRAK

3.585 euro

Mundukidek kopuru hori batzea lortu du *Idai* zikloiak kaltetutakoei laguntzeko.

1965ekoen kintada

Urriaren 19an egingo dute. Joan nahi dutenek 65 euro sartu beharko dituzte kontu korrante honetan, irailaren 6a baino lehen: ES76 3035 0055 17 0551058385.

RPS: 146/18



CLINICA DENTAL

BERGARA

25

urte
baino
gehiagoko
esperientzia
inplantologian

- INPLANTOLOGIA
(kirurgia erraza eta minik gabekoa)
- Estetika eta protesia
- Ortodontzia - Invisalign
- Apnea - Zurrungak



Bidekurutzeta, 36 – BERGARA – Tel.: 943 76 05 77 – www.clinicadentalbergara.es

"Lehenengo Mailara itzuli nahi dugu"

JULEN BARRUTIA ART-KO ENTRENATZAILEA

Berriki egin da ofizial etxeko mutila, orain arte jokalaria jardun duen Julen Barrutia, izango dela Arrasate Rugby Taldeko entrenatzaile, Igor Isasi ordezkatzuz

Julen Iriondo ARRASATE

Aldaketa denboraldia izango da datorrena ARTrentzat: kategoria bat beherago, eta entrenatzaile berriarekin, 11 urteren ostean Igor Isasik agur esan ostean. Entrenatzaile izatea zer den ere badaki Barrutiak, baina gazte-txoekin jardun du orain arte. **Nola izan da talde nagusiaren entrenatzaile izateko eskaintza jasotzearena?**

Ekain osoa berbetan eman genuen, baldintzak-eta adosteko. Beste eskaintza batzuk ere banituen, baina, azkenean, erabaki nuen etxean gelditzea. San Juan aurreko astean esan nien baietz; hurrengo egunetan beste gauzatxo batzuk-eta adosten jardun genuen, eta oraintxe egin da ofizial. Dena dela, jokalaria garrantzitsuenek-eta bazekiten ni izango nintzela entrenatzailea. **Gazte mailako taldearen ezagupena baduzu, eta aurten nahikoa berrituko da talde nagusia gazte horietako batzuekin; urte polita**



Julen Barrutia, astean, Mojategin. XABI GOROSTIDI

izan daiteke, gazte horiekin beherago maila batean.

Bai, alderdi hori positiboa da. Lauzpabost urte daramatzat nik entrenatzaile lanetan, eta nirekin urte pila batean ibili diren zazpi mutiko igoko dira. Errugbiko

gauza gehienak nirekin ikasi dituzte, eta nirekin igoko dira; niretzat, hori polita da. Dena dela, abantailak moduan, bestelakoak ere badira: entrenatu behar ditudan jokalaria denak nire lagunak dira, eurekin joka-

tu dut, eta hori ona da, alde batetik, baina txarra, bestetik. Hala ere, uste dut urte polita izango dela: maila galdu genuen, eta helburua igotzea izango da; Bigarren Mailan ere oso polita da lehena geratzea, eta nahi duguna da talde egonkorra sortzea eta Lehenengo Mailara itzultzea. **Orain zuk hartuko duzun arduraren, 11 urte egin dituen Igor Isasi ordezkatzera zator; nola baloratzen duzu bere lana?**

Ni Igorrekin hazi naiz jokalaria moduan, pila bat ikasi dut berarengandik. Berak irakatsi dit kirolari izate hori, diziplina, pisuak jasotzera etortzen, gorputza zaintzen, konpromisoa... Dena dela, 11 urte urte asko dira; gehiegi, nire ustez. Bai beretzat eta bai jokalarientzat ondo datoz aldaketak. Hori bai, lan handia egin du Igorrek.

Lehen taldeko entrenatzaile izatez gain, harrobiaren ardura ere izango duzu?

Bai, apur bat bai. 18 urtez azpikoak ere nirekin entrenatuko dira, ze lau urte daramatzate nirekin entrenatzen. Denok batera entrenatuko gara, entrenamenduen dinamika aldatzeko, jende gehiago egoteko, entrenamendu guztietan 30 lagun inguru egoteko; jende gehiagorekin, entrenamendu dibertigarriagoak egin daitezke, erreagoak, kontuan izanda hamabost hamabosten kontra izaten dela errugbia. Horrez gain, errugbiaren hainbesterako ezagutzarik ez duten

beheko entrenatzaileei apur bat laguntzea ere bada kontua; azken finean, herriko talde bat da gurea.

Urte pila batean izan zara jokalaria, eta penaz utzi duzu; nola izan da jokatzeari utzi eta entrenatzaile hastearena?

Kirol arloko ikasketak ditut eginak. Hasi nintzen gaztetxoak entrenatzen, eta poliki-poliki joan nintzen entrenatzaile tituluak ateratzen. Gustua hartuaz joan naiz. Bestalde, jokatzeari utzeari dagokionez, mokorrean lesio bat izan nuen, eta urte osoa egin dut jokatu gabe, ebakuntza egin behar zidatelako. Azkenean, infiltrazio batzuk egin dizkidan Gasteizen. Orain, hobeto nago, baina aurten, behintzat, entrenatzaile izango naiz. Pena ematen dit ez jokatzek, baina errugbiarekin gozatzen eta ikasten jarraituko dut, eta hori da garrantzitsuenak.

Ze, zaletasun handia duzu; nondik datorkizu errugbirako zaletasuna?

Aita jokalaria izan zen, eta epaile ere bai. Ni bospasei urterekin hasi nintzen jokatzeko, kuadrillako beste bizpahirurekin, Garagartzan; ia hogeitun urte egin ditut jokalaria.

"BESTE ESKAINTZA BATZUK ERE BANITUEN, BAINA ETXEAN GERATZEA ERABAKI DUT"

Azken denboraldiarekin "pozik", hurrengorako lanean da Mondra

Kirol eta ekonomia arloen balantze baikorra egin zuen zuzendaritzak eguazteneko batzar orokorrean

J.I. ARRASATE

Denboraldi hasieran zehaztutako helburu guztiak bete ez badira ere, kirol ikuspegiari dagokionez pozik dago Xabi Etxeberria presidentea; bereziki, talde nagusiak egindako lanarekin: "Lehen taldea Hirugarren Mailara igotzeko helburua zehaztu genuen denboraldi hasieran, baina aitortu beharra dago, akaso, anbizio handiegiko helburua zela. Lehen taldean badaude jokalariai datorren urtean ere goiko postuetan egoteko"; laugarren amaitu dute aurten.

Gizonezkoen talde nagusiarekin jarraituz, Etxeberriak aurreratu du Jorge Davilak jarraituko duela entrenatzaile lanetan hirugarren urtez, baina planifikazio aldaketa bat izango dela aurreratu du.

Talde nagusiaz gain, aurten gazte mailako taldeak piztu du itxaropen handien -Euskal Ligarako igoera ez dute ozta-ozta lortu-. Lehengaia badago, antza, etorkizuneko lehen taldea elikatzeko: "Heldutasun handia lortu dute eta entrenatzailearekin konfiantza handia dute.



Batzarreko irudi bat. JOKIN BEREZIARTUA

Zeresana emango duen taldea izango da", dio Etxeberriak.

Emakumezkoen taldea ez da Euskal Ligara igo, ez duelako jokalaria nahikorik, eta erabaki dute Aloña Mendirekin batera sortzea senior mailako taldea.

Diru kontuei dagokienez, "osatsuntsu" dago Mondra, eta aurrerakotua handitu egingo dute, aurtengo 182.000 euroetatik -500 euroko superabita izan dute-200.000ra, sarrerak ere handitzea espero dute eta.

Ointxeren, Mondraren eta Mondrateren udako campusak

Gustuko duten kirolean trebatuz ondo pasatzeko aukera izan dute eta izango dute egun eta asteotan Arrasateko neska-mutikoen. Ointxek astean egin du saskibaloia campusa. Eneko Matxak gidatuta jardun dute. Martxan jarraitzen dute, ordea, Mondraren eta Mondrateren saioek.

Mondraren campusa aste honetan hasi da, eta beste hiru iraungo du. 8 eta 12 urte artekoak ari dira bertan, eta, entrenamenduez gain, bestelakoak ere badituzte; Zubietara eta Anoetara irteera, tartean. Areto futboleko campusa 8 eta 16 urte artekoentzat da, eta Musakolan egingo dute, hilaren 19ra arte.



Aitor Gallastegi, Olatz Urkia, Xabier Urkia eta Jaime Lizaranzu, entseatzuten duten lokalean. E.A.

Estreinako emanaldia etxean egingo du Leike-k

2018ko azaroan sortutako Leike talde arrasatearra izango da Arrasate Blues jaialdiko taldeetako bat; Olatz Urkia gitarra-joleak, Xabier Urkia bateria-joleak, Aitor Gallastegi baxu-joleak eta Jaime Lizaranzu abeslari eta harmonika-joleak osatzen dute taldea

Eneko Azurmendi ARRASATE

Duela urtebete inguru hasi zen Leike taldea sustraitzen, Urkia anai-arrebak eta Gallastegi proiektu bat abiatzeko asmoz elkartu zirenean. "Musikalki elkar ezagutzen eta nolako proiektua martxan jarri pentsatzen aritu izan gara, ze gustu ditugun, ze gura dugun bakoitzak, eta abar", azaldu du Olatz Urkiak. Azken honen konposizioetatik abiatuta, abesti batzuk sortzen hasi ziren, eta 2018ko azaroan Jaime Lizaranzu batu zen. "Lehen entsegu bat egin genuen berekin, ikusteko ea gustatzen zitzaion gu egiten ari ginena, eta hala izan zen. Beraz, entseguak egiten eta proiektu berri honi forma ematen hasi ginen".

Urkiari zaila egiten zaio egiten duten musika estilo batean deskribatzea. "Esan dezaket blues oinarri bat daukala, baina beste kutsu bateko doinuak ere baditugu. Blues tradizionalaz gain, swing edo funk erritmoak ere baditugu".

Gitarra-jolearen esanetan, hasieratik garbi izan dute euskarazko proiektu bat izan behar zela, eta halaxe izaten ari da. "Jaime oso blues-zalea da, bere proiektu propioa ere badauka, baina gazteleraz edo ingelesez abesteko joera dauka. Hori dela eta, berarentzat, erronka bat izaten ari da euskaraz abestea, baina onartu egin du". Momentu hauetan, zortzi abesti dituzte. "Nire ideia musikalak dira, gero lokalera eramanez eta guztion artean osatzen ditugunak. Letrak, berriz, Jaimerenak dira", azpimarratu du Urkiak.

Lehen kontzertua

Proiektu hasi berria izanik, Arrasatekoa izango da Leike

**UZTAILAREN 20AN
ESKAINIKO DUTE
KONTZERTUA
ARRASATEARREK,
TANTAKA TABERNAN**

taldearen lehen kontzertua –uztailaren 20an Tantaka tabernaren kanpoaldean, 21:00etan–, eta Urkia pozik azaldu da Arrasate Blues bezalako jaialdi batean parte hartzeko aukera izateagatik. "Taldea ezagutzera emateko aukera polita da. Bestalde, herri mailan horrelako blues jaialdi bat egitea oso ondo iruditzen zait. Izan ere, badaugu harrobi bat. Arrasaten punk eta oi! estiloak nagusitu dira orain arte, baina, horiez gain, badaude beste estilo batzuk ere", dio.

Emanaldiari dagokionez, askotarikoa izango dela aurreratu du: "Gure erreperatorioa animatua da, kutsu ezberdin asko ukitzen ditugu, eta kolore askotako musika eskainiko dugu".

Disko bat ateratzeko asmoa

Aurrera begira, disko bat ateratzea da taldearen asmoa. Hala ere, ez dute presarik. "Zailtasunak ditugu astean behin elkartzeko ere. Beraz, diskoarena pazientziaz hartu beharko dugu".



Block emanaldiko momentu bat. AMAIA ELIZARAN

Bi dantza emanaldiz gozatzeko aukera gaur, eta antzerkiaz etzi

'Block' eta 'Madera' dantza ikuskizunak eta 'Desahucio' antzerkia izango dira asteburuan, Udazabal-en baitan

E.A. ARRASATE

Bi dantza ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da gaur, egubakoitza, 20:00etatik aurrera, Zaldibarko frontoian. Batetik, *Block*, Amaia Elizaran konpainiaren eskutik, eta 2018ko maiatzean sortua. "Bi emakume gara eta gure artean blokeatu, oztopatu eta abar egiten gara. Erresistentzia horietan oinarritutako hizkuntza propioa eraikitzea da helburua", azaldu du Elizaranek.

Bigarren ikuskizuna Denis Santacana konpainiaren *Madera* izango da. "Denboraldi bat kanpoan eman ostean, etxera

itzultzeak dakarren esperentzian oinarritzen da ikuskizuna. Hiru dantzari izango gara", diote.

Etzegabetze bat, antzerki bidez

Antzerkiari dagokionez, *Desahucio* emanaldia eskainiko du Barsanti konpainiak etzi Maiatzaren Bata plazan, 20:00etan. Edadeko bikote bat etxerik gabe geratzear dago. 40 urtez bizi izan dira etxe horretan, eta hura uzteko unea iritsi zaie. Polizia balkoi azpian dago, gunea inguratuz, eta epailearen agindua betetzeko prest. Auzokideak etxe inguruan batu dira. Zer gertatuko da?



AIMAR ELORTZA

'Kaosa' argazkia, onena

Zezen-plazako une zoro bat izoztu zuen Aimar Elortzak kamerarekin, eta horri esker lortu du Artgazkik eta Udalak antolatzen duten San Juan jaietako argazki lehiaketako lehen postua. Ander Etxeberriaren *Dantza* izan da bigarren, Aritz Gordoren *Vacile* hirugarren eta Mikel Maidaganen *Esnatu berria* argazkiak jaso du originalenaren saria.



Hainbat herritar, Arrasaterako autobusa hartzekotan. J.I.

Auzoen eta Ibarren arteko zerbitzua hobetu egin dute

Orain arte Arrasaterako edo Gasteizerako ordutegiei lotuta zegoen auzoen eta Ibarren arteko autobus zerbitzua; orain, ordea, aukera handitu du Aldundiak, irteera ordu ugariarekin. Dena dela, zerbitzua erabiltzeko, erreserba egin beharko da aurrez

Julen Iriondo ARAMAIO

Arabako Foru Aldundiak autobus zerbitzu berria jarri du martxan Aramaioko auzoak eta Ibarra lotzeko. Lehengoa hobetu egin dute horrela, Lierni Altuna alkatearen arabera: "Orain arte egon da Ibarrik ateratzen diren Arrasaterako edo Gasteizerako autobusen ordutegiari lotuta. Guk dakigula, bailaran, Oleta alde batera utzita, apenas erabili da, eta orain egin dutena da hobetu, eta medikuarenera edo erosketetara joateko, ordutegi batekin, autobus linea orokorretik kanpo aukera eman".

Autobus zerbitzuak ordutegia izango du, bai: astegunetan,

06:50ean hasita eta 21:15ak bitartean, hamar irteera ordu ditu auzoetatik eta beste hainbeste Ibarrik; asteburuetan, berriz, zortzi irteera ordu, 08:00ak eta 20:25 artean. Dena dela, ordutegia izan arren, zerbitzua erabili ahal izateko ezinbestekoa da bezperan, iluntzeko 20:00ak baino lehen, erreserba egitea –asteburuetan, 15:00ak aurretik–: www.araba.eus/alavabus helbidean edo 945-18 20 60 zenbakian egin behar da.

Oletarrak, gabe

Aramaioarrek orain arte askorik erabili ez izan arren, alkateak positibo jotzen du Aldundiak zerbitzua hobetu izana eta he-

rritarrek erabiltzeko aukera zabalagoa izatea; animatu egiten ditu, gainera. Tamalez, ordea, gehien erabili izan duten oletarrak, Aramaiorako bai baina Otxandiorako lotura egiteko modurik gabe daude, zerbitzua eskaintzeko inor ez delako aurkeztu: "Hor dugu lana egin beharra, ea topatzen dugun inor oletarrei zerbitzu hori eskaintzeko, eta Legutiorekin ere ari gara hizketan horretarako. Oletarrentzat, Ibarra baino gehiago, Otxandio da euren herrigunea", dio alkateak.

Bidaia bakoitza euro bat eta 70 zentimo kostako da BAT txartelarekin, eta bi eta 50, txartelirik gabe.

Sua egitea debekatuta, irailaren 22ra bitartean

Foru Agindua jarri du indarrean Aldundiak, eta ezingo da surik egin Arabako edozein motatako landa eremuetan, baso publiko zein pribatuetan, parke naturaletan, errepideetako atsedenguneetan eta aisialdirako parkeetan –barbakoa egonkor edota mugikorretan–; horrenbestez, Andramarin eta Marixekan horretarako prestatuta dauden tokietan ere ezingo da surik egin.

Sua egiteak 1.000 euroko isuna ekar dezake, eta eragindako kalte eta galerak ordaindu beharra. Horrez gain, gaiaren inguruan Zigor Kodeak araututakoak ere aplikatu ahal izango zaizkie araua hausten dutenei.

OHARRAK

'Korterraza mix'

Film laburren jaialdia egingo dute hurrengo egunean –elizako eskaileretan– eta egubakoitzean –parkean–. "Urteko hamar film labur onenak" iragartzen dituzte kartelean. 22:00etan izango da.

Memoria lantzea

Irailen jarriko dute martxan tailerra. Arreta, pertzepzioa, ulermena, oroimena, mintzaira, kalkulua... landuko dituzte, Alaiak erretiratuen elkartearen eskutik. Elkartearen eman behar da izena.

Nagusien oporrak

Eguaztenean amaituko da eskaera egiteko epea.



ITUR ZURI

Itur Zurikoak, Gasteizen

Emakume handien ibilbidea izeneko irteera egin dute Itur Zurikoak ikasturtea amaitzeko. Gasteizen izan ziren herriko emakume taldeko kideak, eta egun ederra pasatu zuten lagun artean.

Gaur, berriz, egun berezia da Itur Zurikoentzat, eurena izango da-eta jaien hasierako txupina botatzeko ardura.

SAN MARTIN JAIK 2019

GOIENA TELEBISTA, ARAMAIOKO JAIK

UZTAILAREN 9AN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ERA 23:00ETAN
AITOR AGIRIANOK GIDATUTAKO SAIOA

goiena
Zu hemen zaude.



EGITARRAUA

EGUBAKOITZA 05

19:00 Txupinazoa eta pregoia, Itur Zuri Emakume Elkartearen eskutik.

19:05 Trikitixa Eskolako kalejira.

19:05 Herriko buruhandi eta txistulariekin kalejira.

19:30 Txosnen irekiera.

20:00 Batumore taldearekin, Batukada Feminista eta kalejira.

23:00 Zunbalain erromeria plazan.

00:00 Kontzertuak txosnetan: NIÑA COYOTE eta CHICO TORNADO + RUKULA + BRIGADE LOCO.

05:00 Trapu jolasa txosnetan.

ZAPATUA 06

10:00 Hockey partiduak frontoian.

11:30 Umeendako egurrezko jolasak plazan.

11:30 Auto klasikoen erakustaldia plazan.

12:00 Patata-tortilla lehiaketa.

12:30 Aramangelu Txaranga.

16:30 Briska eta mus txapelketa erretiratuen lokalean.

17:00 Plater tiroketa txapelketa.

17:00 Konpost taldearen emanaldia.

17:00 Ping-pong txapelketa frontoian.

18:30 Magia-poteoa –gertuko magia– Txoborro magoarekin.

23:00 Puro Relajo taldea plazan.

00:00 Kontzertuak txosnetan: THE POTES eta KAÑERIA 13.

05:00 Makrotwister-a txosnetan.

DOMEKA 07

11:00 Diana txistulariekin.

12:00 Meza, Bizente Goikoetxea abesbatzak lagunduta.

13:00 Herriko ume jaioberriei ongietorria. Ondoren, herriko dantzarien emanaldia.

17:00 Jolas parkea, parkean.

18:00 Herri kirolak plazan: 2019ko Bigarren Mailako Aizkora Txapelketa.

19:30 Ertzak bidean ikuskizuna herriko plazan.

20:00 Eusko Label parrilada plazan.

20:30 Dantza, Ertzak taldearekin, plazan.

20:30 Txosnetan ZUK IN, ZUK JAN afaria.

22:30 Deabru Beltzak taldea: *Su a feu*. Ondoren, berba pasea eta film labur lehiaketako sari banaketa.

ASTELEHENA 08

11:00 Haurrendako jokoak parkean.



GOIENA

Astelehena Mozorro afaria

Herri afaria egingo dute astelehenean, mozorrotuta. Elektrotxaranga girotuko du eta mozorro onenari saria emango diote, tripa bete ostean. **Herriko plazan, 20:30ean**

12:30 Up! haur ikuskizuna plazan.

13:00 Kantu Jira Añain.

16:30 Frontenis txapelketa mistoa.

19:00 Txikiren umorezko bakarriketa, plazan.

21:30 Mozorro afaria plazan, Elektrotxarangarekin animatua. Ondoren, mozorro onenari saria.

23:00 Anbotoko Mariren despedida.

01:00 DJ Isma txosnetan. Ondoren, Urrezko Gibelaren sari banaketa.

SAN MARTIN JAIK 2019 ARAMAIO

"Aramaioko Udalak jai zoriontsuak opa dizkie aramaiorrei, eta nahi duten guztiei jaietara hurbiltzeko gonbita egiten die!"



ARAMAIO

Bizente Goikoetxea plaza 1 • ARAMAIO
Tel.: 945 44 50 16 • udala@aramaio.eus
www.aramaio.eus



Eraso sexistarik gabeko gunea

ARAMAION EREI
KALEAK, GAUAK
ETA JAIK
GEUREAK
DIRA!



Itur Zuri elkartearen eskutik hasiko dira jaiak

Sortu zenetik gaur egun arte egindako lanari oroigarri bezala, Aramaio Itur zuri emakume taldeak izango du aurtengo sanmartinetan pregoia botatzeko ardura. Hala, haien eskutik hasiko dira jaiak gaur, 19:00etan, udaletxeko balkoira igota

Jone Olabarria ARAMAIO

"Urteetan zehar egindako lanari eskertza-keinu bat izatea espero dugu". Hala mintzo dira Udaletik, aurtengo pregoilari buruz galdetuta. Hain zuzen, herritarren proposamenen artean aukeratu dute jaiak hasiera emango dien taldea: "San Martin jaiak parte hartzaileagoak egiteko asmotan, inkesta bat egin ohi dugu urtero. Bertan, ekintzak proposatzeko aukera ematen zaio herritarrari, zer ikusi nahiko lukeen esateko. Pregoilariak proposatzeko aukera ere bada, eta aurtengo kasuan emakume elkarteak jaso zituen boto gehien".



Itur Zuri elkarte emakumeak. ITUR ZURI ELKARTEA

Emakume guztientzat

Itur zuri elkarteak "pozez" hartu zuen proposamena eta "hasiera-hasieratik elkartean aritu direnei" eskaini nahi izan die omenaldia. Albistea jaso bezain pronto jarri ziren harremanetan lehengo kideekin, eta haiek ere "ilusio handiz" hartu dutela diote.

Gauzak horrela, sei kide igoko dira gaur udaletxeko balkoira: "Lau emakume nahiko nagusiak dira. Taldea hasi zenean, 80ko hamarkadan, buru-belarri aritu ziren lanean, eta gaur balkoian egotea merezi zuten". Gainerako

bi kideak batzarreko egungo kide bat eta kide izandako beste emakume bat izango dira.

Txupinazoa botatzeko "gogotsu" daudela aitortu dute, "Ezin izango gara denak egon pregoia botatzen, baina behean egongo garenontzat ere berezia izango da, emakume guztiona da".

Herriarekin elkarlanean

Elkarte modura 90eko hamarkadan eratu zen arren, emakumeen mugimendua 80ko hamarkadan loratu zen Aramaion. Herri mailan "oso taldea aktiboa"

dela azaldu dute Itur Zuritik. Gainerako eragileekin lanean aritzen direla kontatu dute, eta urtean zehar ekintza ugari parte hartu: "Martxoaren 8rako, esaterako, gazte talde feministarekin batera prestatzen dugu egitaraua. Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunean ere kolaboratzen dugu. Gazte Asanbladarekin lan egin izan dugu, edota dirulaguntzen gestioan", kontatu dute. Horretaz gain, taldeko kideei zuzendutako ekintzak antolatzen ditugu, hala nola tailerrak eta irteerak".



Iazko kuadrillen arteko pikean. GOIENA

Kuadrillen arteko pikearen orde, frontenis txapelketa

"Leku berri bat eta aldatutako denbora faltagatik", aurtun ez da pikerik egongo astelehenean

Jone Olabarria ARAMAIO

Dena prest dute Gazte Asanbladakoek sanmartinei hasiera emateko, eta antolakuntza "gogotsu" agertu da txosnak irekitzeko: "Egitarau indartsuarekin gatzoz aurtun, kontzertu ugari daude eta jende asko erakartzen dutenak, gainera. DJei ere lekua egin nahi izan diegu", azaldu du Unai Etxenausiak, Gazte Asanbladako kideak.

Musikaz gain, hainbat ekintza antolatu dituzte, hala nola berba pasea, film labur lehiaketa, *Zuk in, zuk jan* aforria, baita umeentzat Haurren Herria izeneko jolasgunea ere.

Protokoloa abian

Eraso sexistaren aurrean erantzun sendoa emateko asmotan, aurtun ere protokoloa jarri dute martxan: "Eraso sexistarik gabeko jaiak izatea nahiko genuke, baina,

badaezpada, prebentzio modura, protokoloa abiarazi dugu". Egubakoitzetik eta jaiak amaitu bitarte, 24 orduz erabilgarri egongo den telefono zenbakia ezarri dute: 649 99 57 51.

Bueltatze asmotan

Aurtun, kuadrillen arteko pikeak ez du lekurik izan egitarauan, baina datorren urtera begira bueltan izatea espero dutela jakinarazi du Etxenausiak: "Arrakasta handia izaten du, baina aurtun ezin izan dugu antolatu. Orain ur jokoen parkea dagoen lekuan egiten dugu beti, eta aurtun, denbora faltagatik, ez dugu alternatibarik bilatu. Dena den, 2020an pikearekin jarraitzea aurreikusten dugu". Bitartean, frontenis mistoko txapelketa azkarra izango da, eta txosnagunean ez da girorik faltako bazkari ostean.

ETXERAKO ETA BASERRIRAKO BEHAR DUZUN GUZTIA ARAMAION BERTAN!

PENTSUA - HAZI ETA LANDAREAK
BURDINDEGIA - PRODUKTU EKOLOGIKOAK
ETXEKO HORNDURA - BERTAKO ELIKAGAIK
FRUTA ETA BARAZKIAK - PAPERTEGIA

ARBEL KOOPERATIBA

JANARI DENDA
NARDEAGA, 11 - 945 10 80 37
NEKAZAL DENDA
ERROTABARRIL 1 - 945 44 51 19
ARAMAIO
WWW.ARBEL.EUS



BEHI-ALDE
ERKOP

BEHI-ALDE, koop. e.
Olaeta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
44 POSTA KUTXA
20500 ARRASATE



Tel.: 945 45 01 00
Faxa: 945 45 03 15



Araba Classic elkarteko kideak erakustaldi batera bidean. ARABA CLASSIC CLUB

Auto klasikoaren erakusketa, lehenengo aldiz jaietan

Biharko, zapatua, auto klasikoaren erakustaldia antolatu dute, herriko plazan. Gasteizko Araba Classic Club elkartearen eskutik, 30 urtetik gorako hamabost ibilgailu inguru egongo dira ikusgai goiz osoan, arratsaldeko ordu biak arte

Jone Olabarria ARAMAIO

"Herritarrek hala eskatuta" erabaki dute aurreko auto klasikoaren erakustaldia antolatzea San Martin jaietan. "Iaz, erakusketa batera bidean, Aramaiotik pasa ziren auto klasiko ugari, eta herritarrek ikusminez hartu zituzten. Hainbatek herriko jaietan halako ekintza bat gustura hartuko zutela adierazi ziguten", diote Udaleko ordezkariak, no-bedadeaz galdetuta.

Plazan leku mugatua dagoela eta hamabost auto egongo dira ikusgai bihar Aramaion. Hogeita hamar eta hirurogei urte bitarte dituzten autoak izango direla jakinarazi dute, eta Gasteizko Araba Classic Club ardu-

ratuko da ibilgailuok herrira eramane eta bertan erakustaldia egiteaz. "10:00etan, Gasteizen bertatik denok batera abiatuko gara Aramaiora eta 11:30 inguru herrian egotea espero dugu. Bazkalordura arte egongo dira autoak ikusgai, eta ondoren, etxera itzuliko gara. Beti egin ohi dugu horrela; guretzat, irteera politikaz izaten dira", azaldu du elkartearen arduradun Ibai Resinesek.

Klasikoaren xarma

Araba Classic Club elkarteak 1994an ekin zion ibilbideari, 25 kideren eskutik. Orduetik hona, ibilgailu klasikoaren mantentze

eta berreskuratze lanetan aritu dira. "Egun, 200 kideetik gora ditu elkarteak, oso talde aktiboak gara eta beti gabilta ekintza eta erakusketetan sartuta. Auto klasikoek gain, ibilgailu historikoak, kamioiak, motorrak eta autobusak ere baditugu".

Harrera ona

Erakusketek harrera "oso ona" izaten dutela diote elkarteek, eta jende ugari gerturatzen dela beti. "Lehen aldia izango da Aramaion, ez gara bertan inoiz egon, baina badakigu jendeari bere gazte denborako autoak ikusita oroitzapen politikaz etortzen zaizkiola burura. Gazteen kasuan, kurioso egiten zaie".

Ikuskizun eta emanaldi ugari San Martin jaiek girotzeko

Musika eskaintza zabala, haurrentzako ekintzak, ikuskizunak eta dantza emanaldiak izango dira nagusi

Jone Olabarria ARAMAIO

Eskaintza zabala osatu dute aurreko San Martin jaietarako, bai Gazte Asanbladak, baita Udalak prestatutako ekintzetan. Barikuan hasita, Zunbalain erromeriak plaza beteko du, 23:00etatik aurrera. Ordu berean, txosnetan, hiru talde arituko dira jotzen: Niña Coyote eta Chico Tornado, Rukula eta Brigade Loco.

Zapatu arratsaldean, 17:00etan, Konpost taldea arituko da taula gainean. Iluntzean, Puro Relajo mariatxi taldeak beteko du herriko plaza, 23:00etan hasita, eta txosnetan, aldiz, 00:00etan, The Potes eta Kañeria 13 taldeak arituko dira.

Domekan, emanaldi ugari eta oso ezberdinak ikusteko aukera izango da. Arratsaldean, 20:00etan, Ertzak taldearekin dantzan aritzeko aukera egongo da plazan, 20:30ean.

Suarekin jolasean

Kaleko dantzan, suan eta erritmoan oinarritzen den *Su à feu* kale ikuskizuna Aramaiora iritsiko da domeka gauean. Afa-lostean, 22:30ean, angelu berri eta fantastiko batetik landuko dute gauaren iluntasuna Deabru Beltzak taldeko kideek. "Etor-kizunekoak diruditen pertsonaia bitxi batzuek kalea hartzen dute eta mundu osoko erritmo ezberdinak lantzen dituzte, horiek su primitiboekin nahastuz", diote taldeko kideek.

Astelehena, umoretik

Azken egunerako, astelehenerako, *Up!* zirku ikuskizuna prestatu dute, eguerdirako, eta arratsaldeko zazpitan, duela hila-bete batzuk biral bihurtu zen audio baten egile den Txikik, umorezko bakarrizketa eskainiko du, *40 urte ta Aldapan behe-ra niek* izenekoa.



Su à feu ikuskizuneko irudiak, Eskoriatzan, duela urte batzuk. GOIENA

dukiena
J A T E T X E A

Azkoaga auzoa. Tel.: 945 44 50 86
ARAMAIO





Udaleko, Aretxarte merkatarien elkarteko eta Ikertaldeko ordezkariak plana aurkezten. MIRARI ALTUBE

Merkataritza indartzea helburu

Herriko merkataritza sustatzea helburu duen Merkataritza Biziberritzeko Plana jarri du abian Udalak; Ikertalde enpresaren laguntzarekin merkatarien egoera ezagutzen dabilta azken asteotan eta aurrera begirako ekintzak zehaztuko dituzte gero

Mirari Altube ARETXABALETA

Sasoi batean, *Mantxuena*, *Romaldueña* eta *Kukuena* dendak bakarrik ziren Aretxabaletan; gero, *Dendabarri* ere bai, *Katalanena*, eta poliki-poliki gehiago. Azkenengo zabaldu direnen artean daude, esaterako, Tak zapata-denda, Kiloka eta Juanma harategia. Batzuek zabaldu eta beste batzuek ateak itxi; erretiroa hartu dutelako itxi dituzten artean daude Pagaldai operi-denda eta Santa Cruz supermerkatua; hain zuzen ere, su-

permerkatu horren jabe Vicente Cubillo joan den zapatuan agurtu zen 39 urtean lanean jardun eta gero. Halabeharrez itxi behar izan dituztenak ere badaude; Atai papergintza, esaterako.

Aretxarte, 19 urte lanean

Merkataritzaren egoera asko aldatu da azken urteotan, eta, mehatxuak gero eta gehiago zirela jakitun, Aretxarte elkar-tea sortu zuten 2000. urtean Aretxabaletako dendariak; 35

batu ziren orduan, bereziki erakundeei laguntzak eskatzeko orduan indarrak batzeko, baita ekintzak antolatzen hasteko ere. Geroago, ostalaritza zerbitzuei zabaldu zizkieten ateak, eta gaur egun 60 kide dira: 40 merkatariek eta 20 tabernariak.

Hemeretzi urtean ekintza mordera egin dituzte herriko merkataritza sustatze aldera eta, era berean, herria girotzeko; horien artean daude: merkealdien azokak, Gabonetako opariak, gaztaina-saltzailea, umeendako

puzgarriak eta jolasak, eta kontzertuak. Hain zuzen ere, ekainaz geroztik egubakoitz arratsaldeak girotzen dihardute Udalarekin batera. Gaur, uztailak 5, esaterako, Jaime Alvarillos Correcher (JAC) goi mailako musikariak musika beltza eskainiko du Dagda tabernaren atzeko partean, Belorrieta auzoan (19:00), eta uztailaren 12an, haurrendako jolasak izango dira, ingelesez, Kids & Us-en eskutik, Gurea taberna inguruan (19:00).

Ikertaren lehen fasea, abian

Merkataritzaren egoera kezka iturri da udal ordezkariendako ere. Horregatik, biziberritzeko plana jarri du abian. "Herriak bizitza izan dezan ezinbestekoa da merkataritza sustatzea eta zaintzea", adierazi du Unai Elkoro alkateak, eta gaineratu: "Orain arte, laguntzak eman izan dizkiegu, baina ordena zehatzik gabe. Zelan lagundu jakiteko, uste dugu egoera ezagutzea garrantzitsua dela, eta horretan hasi gara".

2005ean ere egin zuen halako plana Udalak, baina ordutik egoera asko aldatu delakoan, berri bati ekin diote Ikertalde enpresa bidelagun hartuta; Gorka Goikoetxeak, Elena Eizagirrek eta Iñigo Artetxek dihardute lan horretan. "Merkataritzaren gaineko plan estrategikoak fase ezberdinak izango ditu. Analisi fasearekin hasita gaude, eta analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa egingo da. Dagoeneko

ARETXARTEK 19 URTE BETE DITU ETA 60 KIDEK OSATZEN DUTE: 40 MERKATARIK ETA 20 TABERNARIK

175 dei egin ditugu etxeetara erosketa ohiturak jakiteko: zer erosten den herrian, zer kanpoan, nora joateko ohitura dagoen...", jakinarazi du Goikoetxeak, eta gaineratu du kale kontaketak ere egin dituztela: jendea kanpotik datorren jakiteko, zertara datorren, gastu kaptazioa zenbatekoa den... Horiez gain, norbanakoen ekarpenak ere jaso gura dituzte, eta horretarako bidea zabaldu dute Udalaren webgunearen bitartez: *Aretxabaleta.eus*.

Merkatariekin ere lanean dihardute, bereziki horien profilak ezagutze aldera: sexua, zerbitzuaren forma juridikoa, hizkuntza ohiturak, teknologien erabilera... Eta hainbat eragilerekin ere izan dituzte bilerak, besteak beste, eskualdeko merkataritza teknikariekin, turismo teknikariarekin eta Aretxarteko zuzendaritzarekin. "Behin datu bilketa bukatuta diagnostikoa egingo da, ahuleziak eta indarguneak zeintzuk diren jakiteko", dio Goikoetxeak. Eta ondoren, ekintza plana diseinatuko dute hurrengo urteei begira nondik jo behar den zehazteko. "Hor jasoko dira Udalari dagozkion lanak, kontu urbanistikoak esaterako; merkatariei dagozkienak, kudeaketa eredian, adibidez; eta elkarteei dagozkienak, herriarrek dinamizatze lanak".

Lau hilabete inguruko proiektua da, eta urri bukaerarako eginda egongo delakoan daude ikertzaileak.

175 INKESTA EGIN DITUZTE TELEFONUZ HERRITARREN OHITURAK EZAGUTZEKO

Odontologia estetikoa	Ortodontzia
Endodontzia	PADI zerbitzua
Inplantologia	Hortz protesiak

Asteheneretik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 08:30-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55
www.duranahortzklinika.eus

Herriko merkataritza berbagai



NAHIA AGIRRE UDALEKO LAN
ETA GARAPEN TEKNIKARIA

"Gertutasuna baino gehiago eskaini behar dute"

"Urteotan erosketa ohiturak asko aldatu dira: merkataritza-gune handiak direla, *low cost* erakoak direla, Internet dela, gastu ihes bat dago. Eta herriko merkataritza txikiendako oso zaila da horri aurre egitea. Aretxabaletako egoera zein den ezagutzeko diagnosi bat egingo da, eta gero, ekintzak zehaztu. Merkataritza bizitza da herriarendako, eta, herriko dende gertutasuna eskaintzen badute ere, hori baino aukera gehiago eskaini behar dituzte, eta lehiakorragoak izan. Horretan lagundu gura dugu".



ALBERTO ASENSIO
ARETXARTEKO MERKATARIA

"Herriko bizitzak orokorrean egin du behera"

"Aretxarte sortu zenetik nago ni bertan; elkartuta egoteak uste dut babesa ematen diola merkataritari, norberak bakarrik gutxi egin dezake. Aitajaunak 1943an zabaldu zuen gure denda; ordutik, kontuak asko aldatu dira, eta azken urteetan behera egin du merkataritzak. Dena den, hori orokorra dela uste dut; hau da, herriko bizitzak egin duela behera. Hala ere, ni ez naiz ezkorra, eta bagabiltza gauzatxoak egiten. Udalaren plan honek ikusiko dugu zer ematen duen, baina abian jarri izana ez da gutxi".



NERIAN PEREZ
ARETXARTEKO TABERNARIA

"Udalak eta Aretxartek batera egin behar dugu lan"

"Gero eta tabernari gehiago gaude Aretxarten, eta poztekoa da. Herritarren babesa badugu, baina egia da uda sasoiaren, eguraldi ona dela edo jaiak direla herrietan, kanpora joateko ohitura dagoela, eta hori ez gertatzeko lanean gabilta. Azken asteotan hainbat ekintza antolatu ditugu taberna inguruak girotze aldera. Udalak eta Aretxartek, elkarlanean, herri giroa bultzatu gura dugu. Horretarako, ekintzak batera antolatzea komeni da; hortaz, elkarren arteko hartu-emanak ezinbestekoa da".

"Emazteak erakutsi zidan bezero guztiak hartu behar zirela ondo"

VICENTE CUBILLO SANTA CRUZ SUPERMERKATUAREN JABEA

Azken 39 urteak Santa Cruz supermerkatuan pasatu ostean, zapatuan itxi zituen dendako atean Vicente Cubillok (Baena, 1956).

Azken eguna, zelakoa?

Oso hunkigarria. Aurrekua dantzatzera etorri zitzaizkidan, eta jota geratu nintzen. Ez naiz negar egiten dutenetakoa, baina bat-batean dendan pasatako urte guztiak etorri zitzaizkidan burura; penarik handiena, emaztea ez izatea alboan une hartan.

Denetik izaten zenuen...

Bai, denetik: ogia, fruta, urdaitegikoak, baina baita autoendako gasolioa ere. Horregatik, hutsunea igartzen dutela esaten didate auzoek: "Edozer falta zitzaigunean salto batean etortzen ginen, denetik izaten zenuenez..." Beti izan ditut aparteko bezeroak, eta egia da, egun, edadekoak direla. Horiek oso fidelak izaten dira, betiere, eurekin ondo portatuz gero; neuri



VICENTE CUBILLO

ere alde egin dit batek edo bestek, egindako edo esandako zerbait gustuko ez dutelako izan. **Bezeroarekin tratua bestelakoa izaten da halako denda batean, ala?** Bai, oso gertukoa. Ni beti saiatu izan naiz tratua bera ematen asko erosi izan didanari eta ogi bila bakarrik etortzen zenari. Hori Maribel emazteak erakutsi zidan: "Bezeroa beti ondo hartu, erosi edo ez, aurpegi txarrik sekula ez". Berak esperientzia zuen eta nik beti egiten nion kasu.

Merkataritzaren egoera asko aldatu da urteotan?

Izugarri; sasoi batean, bostek ere lan egiten genuen dendan, ez zegoen saltoki handirik. Ohiturak aldatu egin dira, eta gazteek saltoki handiak gurago dituzte.

Dendaren kargu egingo denik ez duzu topatu?

Pare batek agertu dute interesa, eta horiekin elkartuko naiz; kanpoko jatorrikoak dira biak. Hemengoek ez dute gura halakorik, oso sakrifikatua da eta: goizaldeko lauretan jaiki eta iluntzera arte lan egin izan dut nik.

Pasadizo asko bizi izango zenituen, ezta?

Horixe! Gogoan dut Optalidon pastillak saltzen genituen sasoi, emakume mordoa etortzen zen erostera, edadekoak asko; batzuei ez genien saldu gura izaten, hari lotuta bizi zirelako.

Zer izan da urteotako onena?

Herritarrekin tratua. Ni oso lotsatia naiz, eta jendearekin hartu-emanak izugarri lagundu zidan. Tratu estua izan dut bezeroekin, askoren hiletetara ere joan izan naiz; ez delako bezeroa galtzen, laguna baizik.



'Geroa sortuz' campusean elkartu diren gaztetxoak eta begiraleak. UDA

Futbolaz harantzago doan campusean, ezin gusturago

54 gaztetxo elkartu dira seigarren 'Geroa sortuz' topaketari agur esango diote gaur, gurasoekin batera

M.A. ARETXABAETA

Futbolaren bueltan elkartu dira Debagoieneko 54 neska-mutiko astelehenetik gaur arte, UDak antolatutako campusean. Futbola ardatz, beste hainbat kontu landu dituzte 9 eta 13 urte bitarteko gaztetxoekin; ingelesa eta emozioak, bestea beste. Horren guztiaren berri emango diete gurasoei gaur arratsaldean egingo duten ekitaldian.

Ibarra futbol zelaia izan dute erdigunea, eta Kurtzebarri eskola jatorduetarako zein lotararako gunea. Bitartean, hara eta

hona ibili dira; Landara eta Zubietara, besteak beste. "Futbolaren gainean ikasteko elkartu gara, baina hori baino asko gehiago egin dugu; emozioen lanketa, esaterako. Inaki Otxoa de Olzaren gaineko ikus-entzuzkoak ikusi dugu, eta horren gainean hausnartu. Oso gustura jardun dute", dio Iker Arriola-bengoak, campusaren ardura-dunak. Elikaduraren eta balioen gaineko lanketak ere egin dituzte: "Elkarbizitza sustatu da, harremanak landu, eta pertsonak erdigunean jarri".

Plastikoa batzera dei egin du Plastikoa Buruan elkarteak

Pauso txikiak emanaz baina aurrera begira jarraitzen dute lanean Plastikoa Buruan taldeko kideek. Eguneroko ekintza txiki horietan gainerako herritarrek ere parte har dezaten honako proposamen hau egin dute udara begira: opor sasoiaren edonora joanda ere plastikozko hiru hondar jasotzea eta dago-kion zakarrontzira eramatea.

Jasotako plastiko horiei argazkia ateratzea ere proposatu dute, eta gero, honako helbide honetara bidaltzea: *plastikoa-buruan@gmail.com*. Oraindik ez dute erabaki argazki horiekin zer egingo duten, baina gaia ikustaraztea eta hausnarketa bultzatzea da asmoa.

Arrasatera joango dira egunean Atxabalta Mugi-koak

Jarduera fisikoa sustatzea helburu duen Atxabalta Mugi egitasmoa eta Basotxo erretiratuen elkarte "ibilaldi osasungarriak" antolatzen hasi dira elkarlanean. Gidari baten laguntzarekin Eskoriatzara joan-etorria egin zuen taldetxo batek aurreko astean, eta hurrengo uztailaren 11n, eguna, izango da; 09:30ean kiroldegitik abiatu eta Arrasaterantz joango dira oraingoan.

Behin ibilaldia bukatutakoan, hamaiketako osasuntsua eskainiko diete indarrak berreskuratzeko. Bertan parte hartzeko, Atxabalta Mugi egitasmoan izena emanda egotea da baldintza bakarra, eta, horretarako, kiroldegira jo behar da.

Ikusmin handia sortu du Aratz-eko antzezlanak

Aratz Elkarteko kideek txalo zaparrada jaso zuten, martitzenean, 'Tulipan txikia' ipuinaren antzerkia amaitzean. Arkupe aretoa jendez lepo egon zen, eta, urduritasunak izan zituzten arren, gustura aritu ziren aktoreak oholtza gainean

Imanol Beloki ARETXABALETAKO

Tulipan txikia ipuina antzeztu zuten martitzenean, Arkupe aretoan, Aratz elkarteko hainbat kidek. Iurgi Etxebarriaren gidaritzapean hainbat astez lan egin ondoren, ikasitakoa erakusteko eguna zen, eta ikusmin handia sortu zuen ekitaldiak.

Jendez lepo bete zen Arkupe Tulipan txikiaren gorabeherak gertutik jarraitzeko. 10-15 minutu inguruko antzezlana izan zen, eta oholtza gainean hamalau bat lagun aritu ziren antzerkigintza ikastaro batean ikasitakoa herritarren aurrean praktikan jartzen. Tulipan txikia triste zegoen ez zuelako loratu nahi, eta berarengana hainbat lagun joan ziren, eguzkia, euria eta haizea, eta denek animatu zuten loratzera eta festa giroan ospatzera.

Esperientziarekin "pozik"

Iurgi Etxebarria Apropox Sormen Iturriko zuzendariak hauxe adierazi du: "Niretzat, esperientzia berri bat izan da. Eurak gustura egon direla ikustea ez zitzaidan hain erraza egiten batzuetan. Piztu egiten zaitu, pentsatzen duzu zerbait ez datorrela ondo, baina, ondo pasatzen ikustean ditudanean, elkarri laguntzen diotela ikusteak



Aratz elkarteko kideak, antzezlana amaituta, publikoa agurtzen. MIRARI ALTUBE

ZORTZI ASTEKO LANAREN OSTEAN, EMAITZA BIKAINA LORTU DUTE ARATZ ELKARTEKOEK

hunkitu egiten nau". Aurrera begira lanean jarraitzeko gogoz daudela gaineratu du Etxebarriak: "Zortzi astez egon gara entseatzen, baina antzezlana bukaerako zerbait da. Horren atzean lan gehiago dago, beraie-

kin konfiantza hartzea... halako lanek dute garrantzia".

Egindako bidea jarraituz

Aratz elkartekoez antzerki munduan aurrerapauso handia eman dutela adierazi du Jokin Antxia Aratz Elkarteko ordezkariak: "Antzezten geroz eta lasaiago daude, lehen ez zitzairen antze-maten, eta hemendik aurrera lan handiagoak egin ditzakegula uste dut. Honen atzean bi hilabeteko lana dago; nahiz eta ordu laurdeneko saioa ikusi, hor dago benetako lana".

GORA ETA BEHERA



JOSEBA URZELAI

Zikoinak elektrizitate poste gainean



Aspuru baserri paretik ateratako argazkia da. Argazkiaren jabeak adierazi duenez, martitzenean ikusi zituen bi zikoinak poste gainean, baina hurrengo egunerako joanda zeudela gaineratu du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.



JONE OJEA

Jolasteaz batera, ikasten

Astlehenean hasi zituzten Aretxabaletako udaleku irekiak, eta, Jone Ojea eta Jon Cano koordinatzaileen gidaritzapean, 32 hezitzaile ari dira herriko 300 neska-mutikorekin batera ekintza mordoa egiten. Aste honetan, jolas eta joko ugari egin dituzte, baina ikasteko tartea ere hartu dute; izan ere, Lekaixoka bertso eskolakoekin izan dira, bertsoen mundua ezagutzen.

Portasol auzoko jaiak antolatzeko laguntza eskatu dute

Portasolgo jaiak uztailearen 19an, 20an eta 21ean ospatuko dituzte, eta bertako zenbait auzokide jaiak antolatzen ari dira. Festak aurrera eramateko, ordea, laguntza ekonomikoa eskatu dute, eta, horretarako, honako kontu zenbaki hau jarri dute, ES58-2100 6838 4701 0008 6414 (La Caixa), nahi duenak diruz lagundu ahal izateko.


Degurixa inguruak ezagutuko dituzte 11. ibilbide historikoan

Hamaikagarren ibilaldi historikoa egingo du Loramendi elkarteko toponimia taldeak. Oraingoan, Degurixa inguruetara gerturatuko dira, eta hango kontuak aztertuko dituzte. Hori antolatzeko, bilera egingo dute uztailearen 9an, 19:00etan, udal txeh zaharrean. Ibilaldia uztailearen 20an eta 21ean egitea pentsatu dute.



JUNE ELKORO
AKTOREA

"Nire papera haizearena egitea izan da. Ez da zaila izan, eta ondo pasatu dut. Gainera, lasai egon naiz, ohituta bainago antzerkiak egiten".



ALEX ELORTONDO
AKTOREA

"Izarak mugitzen aritu naiz antzezlanean, haizearen papera egiten. Ondo pasatu dut, eta ipuina antzezteko asko gustatu zait".



IKER AREJOLA LEIBA
AKTOREA

"Ni eguzkia izan naiz. Aretoa beteta egon da, eta urduri samar egon naiz, baina aktore lanak egitea asko gustatu zait, gustura aritu naiz".



Eskoriatzako txistulariak arduratu dira txupinazoaz eta pregoiaz. AITOR AGIRIANO



Gaztetxoa tirolinatik jaisten.



Udalbatzako hainbat kide San Pedro egunean, elizbiran.



Bolibarren behera ziztu bizian.



Nagusien danborradan, Fernando Eskoriatza plaza beteta.



Txosnagunean, bazkalostean, aulki-jokoan aritu ziren gazteak.

Primerako jaiak Eskoriatzan

San Pedro jaiak parte-hartze handikoak izan dira, batez ere, urteroko hitzordu nagusietan. Aurten, egubakoitzean hasi eta astelehenera arte izan dira, eta gustu guztiak asetzeko moduko ekintzak izan dira lau egun horietan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Pasa den egubakoitzean hasi eta astelehenera arte ospatu dituzte San Pedro jaiak Eskoriatzan. Orotariko ekintzak eta egitarau zabala izan dira aurten ere, adin guztientzat zuzendutako hitzorduekin.

Txistulariek pregoia irakurri eta txupina bota ostean hasi ziren jaiak, eta, horren ostean, herritarren partaidetza handia izaten duen danborrada izan zen, gauean. Herriko kaleetan zehar danbor hotsak izan ziren nagusi, eta, guztira, 257 pertsonak

hartu zuten parte kolorez betetako ekitaldian.

San Pedro egunean, berriz, udalbatzako zenbait kidek elizarrainoko bidea egin zuten udal-txetik; Nuevo Talisman taldeak dantzan jarri zituen iluntzean eta gauean plazara hurbildutakoak...

Domekan, berriz, txosnagunean 180 lagun inguru batu ziren bazkaltzeko, eta ostean, arrakasta handia izaten duten jokoak izan ziren. Pikeaz gain, tranpak ere egiteko aprobetxatu zuten gazte askok, eta hurbildutakoek mo-

mentu atsegina pasatu zuten barre artean. Honekin batera, Onki Xin eta Nogen taldeen emanaldiak ere izan ziren, eta, euria egin zuen arren, jende ugari hurbildu zen bertara.

Herri bazkari jendetsua

Astelehenean, 320 lagun batu ziren, plazan, bazkaltzeko. Baserritar jantzita, sabela bapo bete, eta kantu txapelketa izan zen, urtero lez. VI. buruhandien txirringulari lasterketak ere ez zuen hutsik egin, eta jende dezentente batu zen bertan.



Herri Egunean Fernando Eskoriatza plazan bazkaldu zutenak.





Jose Arana nagusien egoitzan, fatxadako lanak egiten ari dira hezetasun filtrazioak ekiditeko. IMANOL BELOKI

Fatxadako lanak egiten ari dira zaharren egoitzan

Hirugarren fasean, lehenengo solairuan egin dituzte lanak, baina geratzen da zer egin: erizaintzat bulegoa jartzea, erdiko gelan biltegi bat eta bilera gela bat egokitzea... Horrekin batera, fatxadako lanak geratzen dira, eta dagoeneko hasi dituzte

Imanol Beloki ESKORIAITZA

Hainbat urte pasa dira Eskoriatzako Jose Arana nagusien egoitzako lanak hasi zituztela. Bidea luzea izan da, baina forma hartzen ari da Gipuzkoako Diputazioarekin eta Eskoriatzako Udalarekin elkarlanean Eskoriatzako Jose Arana nagusien egoitzako patronatuak eraikina berritzeko proiektua.

Hiru fase batzen dira proiektu horretan, eta, horiek eginda –hirugarrenen hainbat faltan–, fatxadako lanekin hasi dira. Aurreikuspenen arabera, urtebete iraungo dute.

Goitik beherako lanak, amaitzen

Lehenengo fasean, eraikin zaharreko goiko solairuan banakako lau gela berri jarri zituzten, hiru komunekin, eta, horietako bat partekatuta, terraza egokitu eta igogailu berria jarri zuten. Bigarren fasean, aldiz, beheko solairua egokitu zuten. Irisgarritasuna bermatzeko, espazioak zabalduz, eta bertan, terapia

gela, jangela eta egongela handi bat egokitu eta komunak jarri zituzten.

Hirugarren fasean murgilduta

Iazko udan, 2018an, hirugarren faseari dagokionez, egongela eta komunen berrikuntza eta hobekuntzak amaitu zituzten. Hala ere, oraindik hirugarren fasea amaitzeko honako lan hauek geratzen zaizkiela adierazi du Mireia Larrañagak, Jose Arana nagusien egoitzako zuzendariak: "Hiru bulegotan –erizain, sendagile eta zuzendaria– zoru berria jarri eta margotu egingo dute; zentzumen gela, sala sensoriala, lehenengo solairuko biltegia eta bilera gela sortu eta egokitu egingo

FATXADAKO LANAK EGITEN HASI DIRA ERAIKINAREN AURREALDEAN, UR-IRAGAZTEAGATIK

dituzte; eta emergentziarako atea jarriko dituzte".

Honekin batera, fatxadako lanak ere egiten ari dira. Nagusien egoitza zaharreko eraikineko alde guztietan egingo dituzte lanak, baina aurrealdetik hasi dira, han daudelako uriragazte edo filtrazio handienak. "Eskailera eta fatxadaren materialen konposizioagatik, hezetasun filtrazioak daude egoitzan. Obrak fatxadaren aurrealdetik hasi ditugu, hezetasunarengatik kaltetuen dagoen aldea delako, eta kanpoko eskaileretatik, berriutako beheko solairuko pasilloan filtratutako hezetasuna kentzea, ezabatzea edo deuseztatzea da lehenbizi egin nahi duguna", adierazi du Larrañagak.

Fatxadaren %50, Diputazioak Azken fase honetako aurrekontuari dagokionez, hau da, fatxadaren aurrekontua, 142.000 euro da, eta Gipuzkoako Diputaziotik jaso duten dirulaguntza, berriz, 85.200 euro.



San Pedro jaietan egondako kaleko bi salmenta-postu, erreta. GOIENA

Salmenta-postu bi erre dira jaietan, eta kalte handiak eragin

Babesa eta elkartasuna adierazi diete herritarrek Jose Arana kalean erretako postuen jabeei

I.B ESKORIAITZA

San Pedro jaietan izandako salmenta-postu bi erre ziren joan den zapatuan, Jose Arana kalean. Zauriturik ez zen izan, baina postuak kiskalita geratu ziren. Jabeek –bata ekuadortarra eta bestea senegaldarra– laguntza eskatu zuten, eta herritarrek beraien babesa eta elkartasuna adierazi diete.

Hala, dirua zein bestelako laguntza jaso dute kaltetuek, eta hainbat bidetatik: Eskoriatzako txosna batzordeko kideek, esaterako, itsulapikoa jarri zuten, eta 300 euro eman zizkieten ezbeha-

rra gertatu zen egunean. Ordutik hona, herritarrek ere diruz lagundu diete, kaltetuek jarritako kutxara dirua botata.

Udalaren babesa

"Gertatutakoak eragin dituen kaltearen ondorioak gutxitzeko neurriak hartzeko konpromisoa hartzen dugu, eta eskerrak eman nahi dizkiegu kalteak gutxitzeko eta normaltasun egoera batera itzultzeko lanean jardun duten guztiei. Bereiziki ezbeharrak gertatu zenean lagundu zutenei", zioen Udalak zapatuan bidalitako prentsa-oharrak.



RUBEN TESTA

Testa, Europarako sailkatuta

Enait Testa eskoriatzarra denboraldi bikaina egiten ari da. Euskadiko moto-kros txapelketan, 65 zentimetro kubikokoan, lasterketa guztiak irabazi ditu, eta bi geratzen zaizkio denboraldia amaitzeko. Gainera, Espainiakoan egindako lan onagatik, Yamaha koparako sailkatu da, eta, horregatik, irailean Herbehereetan egingo den Europako txapelketarako hautatu dute.

Eguena ezkerro, udaleku irekietan murgilduta

222 haur hasi dira Eskoriatzako udalekuen esperientziaz gozatzen. Urteroko dinamika jarraituz, berrikuntza batzuk izango dituzte, eta azpimarragarriena da egun osoko irteera gehiago izango dituztela, haurrek egindako eskakizunei erantzunez

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eguenean hasi zituzten Eskoriatzako Udalak eta Txirikila Aisialdi Elkarteak elkarlanean antolatutako udaleku irekiak. Aurten, 222 haur izango dituzte, eta beraien gidaritzapean bi koordinatzaile eta 23 hezitzaile izango dira. Atzo hasita, uztailearen 23ra arte, astegunetan, hitzordu ugari izango dituzte.

Urtero moduan, ordutegia honako hau izango da: 10:00etan elkartuko dira Fernando Eskoriatza plazan, eta 13:00ak arte, eta arratsalde, leku berean elkartuta, 15:00etatik 17:00etara bitartean arituko dira 3-12 urte bitarteko haurrak (HH1-LH6) jolasean. Ordutegian ez, baina badituzte berrikuntzak aurten-egitarauan.

Egun-pasa gehiago aurten

Bi berrikuntza nagusi dituzte aurtengo egitarauan: batetik, sanferminak ez dituzte ospatuko aurtengo udalekuetan, eta, bestetik, irteera gehiago egingo dituzte, haurrek hala eskatuta. "Udalekuak hasi aurretik egindako formakuntza saioan, sanferminak ez egitea erabaki genuen. Horrez gain, iazko udalekuetako balorazioak aztertu ostean, haurrek egun-pasa gehiago egin nahi zituztela ikusi ge-



Atzo, udalekuak hasi aurretik ateratako talde argazkia. IMANOL BELOKI

nuen, eta, beraz, beraien eskaerak aintzat hartuta, beste urteetan baino dezente gehiago egingo ditugu. Talde bakoitzak hiru eta bost irteera artean izango ditu. Hala ere, horietatik bakarra izango da autobusez joango garena. Gasteizeko Gamarrako igerilekuetara joango dira batzuk, eta, txikienak, aldiz, Gopegira, beste urtetan egin izan dugun moduan. Uztailearen 12an egingo dugu irteera hori, eguraldi ona egiten badu, behintzat", adierazi du Maialen Lete udalekuetako koordinatzaileak.

Irteeraz gain, herriko askotariko txokoetan egunero arituko dira gaztetxoak jolasean. Urtero bezala, igerilekura joango dira zenbait bider, sukaldaritza tailerrak ere ez du hutsik egingo, ezta uraren egunean ere disfrutatzeko aukera izango dute.

Zaintza zerbitzua ludotekan

Beste berrikuntzetako bat Txirikila Aisialdi Elkartearen eskutik eskainitako zaintza zerbitzua izango da. 08:30etatik 10:00ak arte Tortolis ludotekan egingo dira hainbat haur.



Jost Van Homelen, Eugenio Otsoa, Rens Klaasse eta Joxerra Agirreurreta. AGIRREURETA

Mathieu Hermans-en eta Jan Jenssen-en kamisetak Dorletan

Ziklista herbeheretarren maillotak sinatuta jasota, Dorleta Txirindulari Elkartearen bildumara batu dituzte

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Dorletako santutegiak herritarren eta bisitarien miwesmena sortzen du; bereziki, txirindulari-zaleena. Dorletako Ama horien zaindaria da 1958az geroztik, eta XII. mendekoa da santutegian dagoen ama birjinaren irudia. Horiek ikusten izan ziren Rens Klaasse, Ans Van Homelen eta Jost Van Homelen herbeheretarrek pasa den zapatuan. Hainbat opari eraman zituzten bertara, eta Eugenio Otsoak eta Joxerra Agirreurretak egin zieten harrera bisitariari.

Alde batetik, Rens Klaasse *Ciclive* aldizkariko erredaktoreak bi ale eraman zituzten gatzagarrei. Ale horretan, Dorletako Ama birjinaren eta Santutegiaren bueltan iaz egindako erreportajea agertzen da. Bestetik, Mathieu Hermans eta Jan Jenssen txirindulari ohien bina argazki eta maillot eraman zituzten, haien

sinadurekin. Honekin batera, Hermans buruz idatzi den liburua, *Tegen de Stroom in*, utzi zuten bertan, beste oroigarriekin batera.

Txirindulari handiak

"Jenssen eta Hermans txirindulari ohien maillot sinatuak hemen izatea ohore bat da guretzat. Herbeheretatik etorri dira, gainera, bisitan, eta ahal izan dugun harrera beroena egin diegu. Guk, trukean, ama birjinaren estatuetxoak eman genizkien guztientzat. Batetik, bisitariarentzat, eta, bestetik, Hermansentzat eta Jenssentsentzat. Oso gustura geratu gara bisita honekin", adierazi du Eugenio Otsoak. Jenssenek Frantziako Tourra irabazi zuen, 1968an, eta Espainiako Vuelta, 1967an, eta Hermansek, berriz, 1988an Frantziako Tourreko etapa bat irabazi zuen, beste lorpen batzuez gain.

Erakusketa Ibarraundin

Ekainaren 27an inauguratu zuten *Eskoriatzako udaletxeak* erakusketa Ibarraundin, eta uztailearen 10era arte egongo da zabalik, honako ordutegi honetan: 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara bitartean. Eskoriatzan izandako hainbat udaletxeren kokapena eta historia batzen du erakusketak, panel informatiboen bitartez, besteak beste.



1.B



LEINTZ GATZAGAKO UDALA

Iragarkia

Leintz Gatzagako Udalak 2019ko ekainaren 28an egindako ezohiko saioan Udal jabetzakoa den etxebizitza baten besterengaratze espedienteak, enkante bidez, hasia eta prozedura arautuko duen administrazio pleguak onartzea erabaki du.

Eskaintzak aurkeztu ahal izateko epea irekitzen da, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean.

Administrazio pleguak interesatuentzat eskuragarri egongo dira Udalaren kontratazio profilean www.leintzgatzaga.eus helbidean, eta 943 71 47 46 telefono zenbakian.

Leintz Gatzaga, 2019ko ekainaren 28a.
Juan Bengoa Pagaldy, alkatea.



Askotariko adineko eta jatorritako bizilagunak Osintxuko zubi ezagunean, martitzen arratsaldean. JOKIN BEREZIARTUA

Osintxu bizirik izateko nahiak ez dira degradatu

Osintxuk birgaitzeko duen beharraren adierazle da gune degradatu izendapena jaso berri duela, baina Udalak eta auzotarrek ez dakite oraindik laguntzak nolakoak izango diren, zehazki; zerbitzu aldetik ondo estalita egon arren, populazioa behera eta zahartzen doa

Jokin Bereziartua OSINTXU

Bergarako herrigunetik bost kilometrora egoteak betidanik eman dio Osintxuri izaera eta nortasun propioa. Erroldako azken datuen arabera, 400 herritar bizi dira egun Osintxun. Joera beheranzkoa izan da azken hamarkadetan: 1970ean 638 biztanle ziren; 1981ean, 698; 1986an, 668; 1996an, 488; 2010ean, 467 eta gaur egun 400 biztanlekoa da kopuru ofiziala.

Populazioak behera egin eta biztanleria zahartu egin den arren, nortasun handiko auzo *independentista* da Osintxu oraindik ere: "Beti aldarrikatu izan dugu independentzia Bergararekin, baina oraingoz ez dugu lortu [kar-

kar]. Bergarako ghetto bat gara-la dirudi, baina horrek aberastu egiten gaituela uste dut", dio bizitza osoa bertan egin duen eta Osintxuko Herri Batzarreko kide den Aitziber Alberdik.


%20 etorkina, 13 herrialdetatik

Hain zuzen, Osintxuren bereizgarrietako bat da etorkin kopurua Bergarako beste auzoetan baino nabarmen handiagoa dela. "Azken neurketaren arabera %18 inguru da etorkina eta go-goan daukat orain ez gutxi kopurua %22koa zela. Guretzat, aberasgarria da hori, ongi etorriak dira eta izango dira. Baina arazoa da bertakoak kanpora joaten direla...", adierazi du

Aitziber Alberdik. Izan ere, Gambiako, Senegalgo, Argentinako, Txileko, Saharako, Marokoko, Ukrainako, Kolonbiako, Venezuelako, Kubako, Ekuadorko, Alemaniako eta Suitzako herritarrak bizi dira Osintxun, baina bertako gazteen exodoa nabarmena izan da azken hamarkadetan. Azken bost urteetan gazte euskaldunak etorri izanak itxaropena piztu du auzotarren artean; bereziki, adinekoen artean.

Bizilagunen inplikazio eske

Adineko bizilagun horietako bat da Josetxo Urbietea, auzoko Kofraixa jaiak antolatzen urte luzez aritu izan den osintxuarra.



J.B.

"Interbentzio handirik ez dut gogoratzen"

AITZIBER ALBERDI HERRI BATZARREKO KIDEA

Populazioaren zahartzea nola ekidin nahi duzue?

Osintxu erakargarriagoa eginda, etxeak eta kaleak zaharberrituta. Urte askoren ondoren, gune degradatu izendapena jaso dugu, eta ea horrekin lortzen ditugun auzoa berritzeko laguntzak.

Prozesu zaila izan da izendapena jasotzea?

Birgaitze integratuko area izateko [ARI delakoa] borrokan aritu gara urte luzez; horrekin, leihoak isolatzeko, teilatu berria egiteko eta igogailua jartzeko hiru obrak baten prezioan irtengo ziren. Baina gune degradatu izendapena jaso dugu, eta nolako laguntzak izango diren zehazki ez dakigu. Osintxun interbentzio handirik ez dut gogoratzen bizi naizenetik; etxe berrienak kooperatiba bat sortuta eraiki ziren, hori da dugun aukera bakarra.



J.B.

"Integratzeko ezinbestekoa da euskara"

SALIEU COMMA GAMBIAN JAIOTAKO OSINTXUARRA

Nola gogoratzen duzu heldu zinen eguna?

Gogoratzen dut oso txikia iruditu zitzaidala, eta osintxuarek hasieratik hartu nindutela oso ondo; orain, gehienak dira oso lagun onak niretzat. Osintxuz eta osintxuarez maiteminduta nago. Urteek aurrera egin ahala bertako kultura nirela ere egiten ari naiz.

Zer gustatzen zaizu gehien Osintxutik?

Jendeak agurtu egiten nauela, oso zabalak dira.

Nola ikasi duzu euskara?

Jendeari entzuten nion oso zaila dela euskara ikastea, baina hizkuntza guztiak direla zailak, borondatea behar da. Integratzeko ezinbestekoa da; Bergarako euskaltegian ari naiz, txintxo-txintxo: egunero joan, etxerako lanak egin eta bereziki kalean jendearekin praktikatu.

Zerbitzu aldetik "pribilegiatuak" direla dio, baina autokritikarako gonbidapena ere egin die bertakoei: "Bergarako auzo periferiko garrantzitsuena izango da Osintxu eta pribilegiatuak gara ditugun zerbitzuei dago-kienez: eskola oraindik martxan, liburutegia, ludoteka, ile-apaindegia, fisioa, bi taberna, estankoa, bi denda [domeketan ere zabalik egoten dira, 13:00ak arte], autobus zerbitzu ederra... Baina zerbitzu horiek guztiak mantentzeko bizilagunon inplikazio handiagoa behar dugu;

etorkizun batean dena itxita ikusten dugunean damutu egingo gara. Adibidez, Osintxuk elkarteak dauka baten batek bere garaian egin zuelako; garai haietako auzolanerako grina berreskuratu egin behar dugu".

"Hitzak bai, baina ekintzarik ez"

Udalarekin harremanak nolakoak diren galdetuta, Aitziber Alberdik adierazi du hitzak asko izan dituztela politikarien partetik, baina ekintzak gutxi: "Gobernu aldaketa egon izan denean politikariek beti adierazi izan digu-

te Osintxu euren lehentasunen artean sartuko zutela, baina, behintzat, azken hiru agintalditan ez dugu aurrerapenik ikusi. Lortu dena da gune degradatu izendatzea; ez da gutxi izendapen hori jaso izana, baina aldaketa ukigarriarik ez da izan auzoan".

Ondare handiko zona

Osintxuk iraganera bidaiatzeko hainbat aukera eskaintzen ditu, eta horietako bat da erroten ibilbidea. Muskiritxu errekan zehar, gaur egun martxan ez egon arren, iraganeko usain nabarmena duten errotak daude: Bolua, Atxuriondo, Billote-gibolua eta Laspiurbolua. Horrez gain, ondare arkitektoniko handiko ingurua ere bada. San Emeteri eta San Zeledonio santu martiriaren elizak ez du berebiziko baliorik, 1834ko uholde batzuek orduko eliza desagerrarazi eta beste bat eraiki zutelako. Hala ere, badira balio handiko egitura arkitektonikoak dituzten antzinako baserriak: Arando, Laspiurgañoa, Gantxexigoiti, Izagirre, Untzueta...

Harremanak sendotzeko asmoa

Udal Gobernu berriak aldaketa batzuk egin nahi ditu, diotenez, Udalaren eta auzoetako harremanak sendotzeko. "Uste dut nahiko analisi konpartitua dela azken urteetan Udaleko batzorde horren bilerak eguneroko behar materialak betetzera bideratu direla, obra txikiak-eta gauzatzeko. Komunikazio hori egotea garrantzitsua da, baina horiek auzoetako batzordeetatik atera eta arazo konpartituak edota hausnarketa sakonagoak behar dituztenak lantzea nahi dugu auzoen batzorde horretan".

Hala, Gobernu berriaren planteamendua da hilean behin auzoen batzorde orokorra egitea eta astero auzo banarekin elkartzeko: "Horrela, gutxienez, hiru hilean behin elkartzeko gara auzo bakoitzarekin bertako behar propioei erantzuteko", dio Artolak.

Goiena ikusteko inbertsiorik ez

Lurreko Telebista Digitalaren hedapen-zerbitzuak dituen itzal-guneen artean dago Osintxu, eta horregatik ez da Goiena telebista ikusten. Goienak ez du baliabiderik behar den inbertsioari aurre egiteko –Debagoieneko beste gune batzuetan egin izan dira–, eta Bergarako Udalarentzat ez da lehentasuna, oraingo.



Umeak Osintxuko eskolan, 2019ko otsailaren 1eko atetik. I. SANTAMARIA

Umerik gabe, eskola arrisku larrian

Landa eremuko edo periferiako auzoen etorkizuna bermatzeko oso garrantzitsua izaten da eskola txiki bat izatea, baina urteen eta bizimodu aldaketaren poderioz, ixten joan dira auzo horietako eskoletako gehienak, ume faltak eraginda. Osintxuren kasuan, martxan jarraitzen du oraindik San Martin Agirre eskolaren gela desplazatuak, Haur Hezkuntzara arteko eskaintzarekin. Duela ez asko, dozena bat ikasle bazituzten, baina urtez urte beherantz joan da ikasle kopuru hori eta orain, lau ikasle bakarrik dituzte.

Hurrengo ikasturtean martxan egongo da eskola lau ikasle horiekin, baina Osintxun bizi diren guraso gazte batzuk kezkatuta daude, bereziki, 2020-2021 ikasturtera begira. "Orain arte eskolara joan diren umeen guraso batzuk eta hurrengo ikasturteetan gure umeak sartzeko nahiko genukeen beste batzuk biltzen hasi ginen duela hilabete batzuk. Gogotsu gaude lanerako eta gure lehen helburua da Osintxura guraso berriak erakartzea. Izan ere, eskola ixteak ondorio kaltegarri nabarmena izango du Osintxuren eguneroko bizitzan", adierazi du Ponportola guraso taldeko lone Santamariak. Txikitasunaren aldeko apustu egin nahi dute Ponportola taldekoek: "Dena makro-rantz doan garaioan, txikitasunaren alde egiten dugu apustu, auzoak bizirik nahi ditugu eta. Eta Osintxu zainduago eta erosoago baten behar larrian, eskola bultzada handi bat gehiago izango dela uste dugu", adierazi dute.



1970eko Kofraixetako helduen danborrada. OSINTXU HERRI BATZARRA

Jaiak: bereziak, aldaketak aldaketa

Abuztuko azken asteburuan ospatzen dituzte Kofraixak osintxuarrek, santua berez martxoan izan arren. Hainbat ekitaldi galdu egin dira dagoeneko –asto lasterketa, txahalaren hilketak zein dastatzea eta danborrada, esaterako–, baina jaiak oso era berezian bizi dituzte.



Osintxuko etxe zaharretako batzuen fatxadak, errekararen aldetik aterata. J.B.

Gune degradatu izendatu berri dute

Ekainean jaso zuen Osintxuk gune degradatu izendapena. Bergarako alkate Gorka Artolak GOIENARI adierazi dio izendapenak osintxuarrei zehazki ze aukera eskainiko dien aztertuko dutela eta irailean teknikariekin joango direla Osintxura: "Gune degradatu izendapena ARLa [birgaitze integratuko area] baino murriztagoa da; dirulaguntza batzuk lortzeko bidea zabaltzen da, baina oraindik ez dugu dokumentu horretarako sarbiderik izan. Espektatibak handiak izan badaitezke ere, ikusi egin beharko da bizilaguneko eta komunitateko ze aukera dauden birgaitzerako. Ea izendapenak behar moduan dinamizatu dezakeen Osintxuren biziberritzea; irailean Hirigintza teknikariekin bidez bizilagunei ze aukera egongo diren azalduko diegu". Hainbat fatxada egoera tamalgarrian daude eta irisgarritasun aldetik gabezia nabarmenak ere baditu.



Osintxutik bost minutura dago putzua; hainbat nerabek erabiltzen dute. J.B.

Bainua bai, segurua eta garbia bada

Baliabide naturalen aldetik ere Osintxuk badu zer eskaini. Muskiritxu errekan zehar badaude putzu batzuk udan bainurako erabiltzen direnak, egunik beroenetan txiki geratzen direnak: "Ez dago etzanda egoteko lekurik eta bainua hartzen dabilen jendeak toallak eta bestelakoak errepidean uzten ditu, horrek dakarren arriskuarekin; ezin dugu ahaztu autoak pasatzen direla baserrietara joateko. Batzuk, gainera, putzutik irten ere ez dira egiten toallak jasotzeko auto bat agertzen denean". Arrisku egoerak bizi izan dituztela diote: "Gaztetxoak etzanda egoten dira edota bizikletekin abiadura handian ibiltzen dira ikusgarritasunik ez dagoen pista batean. Zerbait larria gertatu aurretik neurriak hartzea eskatzen dugu". Horrez gain, auzotarrek salatu dute bainua hartzeko bertaratzen direnek eremua ez dutela nahikoa garbi uzten.

Hamabi batzorde eta sei liberatu agintaldi berrian

Atzo erregistratu zituzten batzordeetarako ordezkari titularrak eta ordezkokoak; Gorka Artola, Ainhoa Lete, Ekaitz Aranberri, Aitor Arantzabal eta Kristina Markina izango dira Gobernuko zinegotzi liberatuak, eta oposizioetik EAJko Maite Agirre %100eko dedikazioan arituko da

Jokin Bereziartua BERGARA

Hamabi batzorde eta 17 zinegotzitatik sei liberatu izango ditu udalbatzak 2019-2023 agintaldirako. Hain zuzen, udalbatza berria eratu osteko lehen osoko bilkurak osaketa kutsu nabarmena izan zuen. Hamabi batzorde horietako arduradun politiko guztiak eta haien ordezkokoak atzo erregistratu zituen udaletxean Udal Gobernuak. Horrez gain, agintaldi honetan sei liberatu egongo dira; bost Gobernuan eta beste bat oposizioeko talde nagusia izango den EAJn.

2015-2019 agintaldiarekin alderatuta, bi aldaketa nagusi daude batzordeen antolaketan: ingurumenak eta berdintasunak batzorde propioa izango dute. Hori bai, Gorka Artola alkateak argi utzi du funtzionamendua ikusi ahala aldaketetara zabalik daudela. Hain zuzen, oposizioeko talde nagusiak, EAJk, batzordeak eratzeko orduan eurekin kontatu ez dutela gogoratu zuen ekainaren 27ko osoko bilkuran; horren aurrean, Artolak batzordeetan aldaketarik apenas egon ez dela esan zuen, horregatik ez dutela oposizioarengana jo.

Gastu politikoa, aurreko berbera
Zinegotzien dedikazioari dagokionez, Udal Gobernuko bost kide liberatuko dira. Bi kide %100eko dedikazioarekin eta beste hiru ordezkari heren banako dedikazioarekin. Gorka Artola alkateak 51.000 euroko soldata gordina izango du urtean, 14 pagatan banatuta. Ainhoa Lete alkateordeak 41.000 euroko soldata gordina izango du; Aitor Arantzabalek eta Kristina Markinak 13.000 eurokoa eta Ekaitz Aranberrik 13.650 eurokoa. Artolak azpimarratu zuen gastu politikoa aurreko Gobernuaren berbera dela: "Bi lagun egunerokoan Udalerako lanean egotea beharrezko ikusten genuen eta horregatik proposatu dugu alka-



Azken osoko bilkuraren hasiera. JOKIN BEREZIARTUA

BATZORDEETAN BI ALDAKETA NAGUSI: BERDINTASUNAK ETA INGURUMENAK SAIL PROPIOA DUTE

tea eta alkateordea jardun osoz liberatzea. Gero, hirugarren jardun bat hiru lagunen artean banatzea erabaki dugu. Gastu politikoa aurreko Gobernuaren parekoa da, eta saiatu gara liberatuon arteko soldatak orekatzen".

EAJko Maite Agirre, %100ean

2016ko Udal Legea oinarri hartuta, EAJko Maite Agirre %100ean liberatu dute; haren soldata gordina izango da 35.454 eurokoa urtean. EAJ eta PSE-EE abstenitu egin ziren proposamenaren aurrean, eta ondoren EAJk salatu egin zuen Agirreraren liberazioaren aurrean EH Bildu abstenitu izana; Elena Letek dio EAJ Gobernuan zegoenean, 2017an, Artolaren liberazioaren alde bozkatu zutela. Amaitzeko, EAJko Esther Ortiz de Zaratek zinegotzi kargua hartu zuen *legeak hala behartuta* formula erabilita.

Batzordeetako arduradunak eta ordezkokoak

- **Hirigintza** Gorka Artola eta Juan Luis Gonzalez.
- **Obrak eta Zerbitzuak** J.L. Gonzalez eta Juanjo Asula.
- **Auzoak** Nagore Iñurrategi eta Ekaitz Aranberri.
- **Ogasuna** Aitor Arantzabal eta Nagore Iñurrategi.
- **Giza Baliabideak** Aitor Arantzabal eta N. Iñurrategi.
- **Kultura** Kristina Markina eta Ekaitz Aranberri.
- **Euskara eta Gazteria** Ekaitz Aranberri eta Kristina Markina.
- **Kirola** Aitor Arantzabal eta Juanjo Asula.
- **Ongizatea** Ainhoa Lete eta Itsasne Luarizaristi.
- **Berdintasuna** Ainhoa Lete eta Kristina Markina.
- **Hezkuntza** Itsasne Luarizaristi eta K. Markina.
- **Sustapen Ekonomikoa, Berrikuntza, Turismoa...** A. Lete eta N. Iñurrategi.



NIRE USTEZ

MIGUEL LAZPIUR

5G: Hausnarketa

5G edo telefonia mugikorraren bosgarren belaunaldia gainean daukagu, eta horrek aldaketa handia ekarriko du haririk gabeko teknologian. Smartphoneak merkatuan azaldu ziren garaian, gure bizitza zeharo aldatu zen, eta dagoeneko hamar urte bete dira. Auto autonomoa, kirurgia telelagundua eta negoziotetan eta gizarte ekonomian aldaketak izango ditugu, eta auskalo zein beste aldaketa mota etor daitezkeen. Ematen duenez, 5G horri esker, gailu elektronikoko asko elkarren artean konektatu ahal izango dira, eta denbora errealean lan egingo dute. Konexioak hamar aldiz azkarragoak izango dira eta urte batzuk barru, 250 aldiz azkarragoak; horrek ekarriko du etxeak, makinak eta lantokiak zeharo automatiko bihurtzea. Dirudienez, 5G teknologiak kontrolatuko ditu ekonomia, armadak eta mundua; hurrengo industria-iraultza hortik etor liteke; horren eraginez dator AEBen eta Txinaren arteko eztabaida. Bitartean, Europa lasai antzematen dut, guregan eraginik izango ez balu bezala. Arduratzen nauen beste gauza bat da Euskaltelen kontrola galdu dugula Euskadin, eta gu lasai; horretan, behintzat, europarren antza daukagu.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Jolasleku berria jarri dute Labegaraietan



Labegaraietako auzotar batek goiko argazkia bidali du jolasleku berria jarri dutela eskertzeko. Beharra bazegoela dio, eta, oraindik hesituta badago ere, espero du laster erabilgarri egotea.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 77](tel:688690077)

OHARRAK

Afari girotuak kartzela zaharrea: bost euro

Uztailaren 5ean eta 12an, 19:00etan. Etekinak erabiliko dira azken erasoetako kalteak ordaintzeko; DJak egongo dira.

Udala: dirulaguntzak euskara ikasteagatik

2018-2019 ikasturteko edota 2019ko udako ikastaroengatik eskaerak irailaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira Udaleko erregistroan: euskara@bergara.eus edo 943 77 91 66.

Kaleko Urdangak taldearen bideoklip berria

Kaleko Urdangak taldeak bideoklipa atera berri du, *Agur eta ohore* izeneko abestiarekin. Vis Vires taldearekin 2019ko abuztuan kaleratuko duten diskoaren aurrerapen abestia da.



Beti Busti kirol klubetik lehiaketetan parte hartu ohi duen gaztetxoek taldea, Labegaraietan. BETI BUSTI

Ur bizietan bustitzen segi nahi dute Beti Bustikoek

Udako eskaintzaren barruan ikastaro batzuk emango badituzte ere, denboraldian egindako lanarekin pozik dago gaur egun 37 bazkide dituen Beti Busti kluba: "Hamabi piraguista izan ditugu lehiatzen aurretik, eta harro gaude guztiek eman duten mailarekin"

Jokin Bereziartua BERGARA

Piraguismoak sasoitsu jarraitzen du Bergaran Beti Busti elkarteari esker. Uztailean gaztetxoendako udako eskaintzan era zuzenean parte hartzen badute ere, irailetik ekainera bitartean ur bizietako bi modalitatetan lehiatzen dira Beti Bustikoak: eslalom olinpikoa eta creek-a.

Eslalom olinpikoa ur bizietako tramu zehatz batean egiten da. Atez osatutako zirkuitu bat ahalik eta azkarren egitea da helburua eta modalitate hori bereziki egin zen ezagun Maialen Chorrat piraguista euskaldunak azken Olinpiar Jokoetan irabazi zuen urrezko dominagatik. Creek-a, berriz, askotariko zailtasun mailletako erreken jaitzierak egitean datza; hobeto ulertzeko, raftingaren bidez egiten diren errekek plastikozko piraguekin egitea.

37 bazkide, hamabi lehiatzen

Beti Busti elkartean 37 lagun dira klubeko bazkide. 14 urtetik

gorako 30 federatu dituzte, eta 8 eta 14 urte arteko zazpi piraguista eskola kirolean. Amaitu berri den denboraldia ondo joan dela adierazi du Beti Bustiko Bikendi Lazkanok: "Eslalom denboraldiari dagokionez, emaitza politak lortu ditugu aurretik kadete federatuen eta eskola kiroleko infantil mailetan. Kadetetan, Oier Villarrek Euskadiko lehen bi kopetan urrea lortu zuen eta orain gutxi Paueko ur bizietako kanalean egindako Euskadiko txapelketan zilarrezko domina lortu zuen".

Infantiletan Ekhi Lazkano izan da nabarmen aritu dena: "Eskolarteko txapelketa guztietan igo da podiumera bigarren eta hirugarren postuak tartekatzen, eta

KIROLDEGIKO OBREK ERAGOZPENAK ERAGIN ARREN ETORKIZUNEAN HOBETO EGONGO DIRELA ESPERO DUTE

denboraldi bukaerako Gipuzkoako txapelketan hirugarren egin zuen. Hamabi bazkide ibili dira aurretik lehiatzen, eta harro gaude eman duten mailarekin".

Kiroldegi berriarekin pozik

Beti Bustikoen egoitza Labegaraietan dago, eta bertako erreka zatian ibili ohi dira astegunetan. Aste bukaeretan, normalean, beste kanal eta erreka batzuetan ibiltzen dira. Kiroldegi berria 2020an hasiko da forma hartzen, baina Beti Bustikoendako hasita daude aldaketak dagoeneko: "Jada bota dute piraguak gordetzeko guren biltegia, baina lekua izango dugu kiroldegiari atxikituko dioten eraikinean. Udalararekin izan ditugun bilertan harremana emankorra izan da eta gure beharrik asebeteko dituen espazioa izatea lortu dugu zorionez. Obrak bukatu artean egoera nahiko eskasean egongo gara, baina espero dugu eragozpenok hoberako izango direla etorkizunean", dio Lazkanok.

Zapatuan eta domekan egin ahal izango dira Tourrerako porrak

Bihar Bruselatik (Belgika) abiatuko den Frantziako Tourrerako porrak domekara bitartean egin ahaliko dira, Lokatza Ziklismo Eskolak jakinarazi duenez. Bergarar askorentzat ohitura da San Martzialgo erromeria aprobetxatzea zerrendak egiteko, baina, joan den domekan ospatu zenez eta ordurako dortsal

guztiak jakinarazi ez zirenez, aurretik ez da aukera hori egon.

Apustuak egiteko karpa jarriko dute Lokatzakoek bihar -18:00etatik 20:00etara- eta etzi -12:00etatik 15:00etara-, Irala kalean. Hortaz, domekako 15:00ak baino lehen entregatu beharko dira apustuak. Zerrenda bakoitzean 15 ziklista aukeratu beharko dira, eta 20 euro ordaindu; sailkapenaren jarraipena www.lokatza.com webgunean egin ahaliko da.



JARDUN

Abiatu ditugu udaleku irekiak!

Goiena komunitatea / Jardun euskara elkarte / BERGARA

Astelehenean abiatu genituen udaleku irekiak, hilaren 26ra arte, 2 eta 12 urte arteko 458 umerekin eta 55 hezitzaileekin. Iaz baino 50 bat ume gutxiagok eman dute izena aurretik, baina pozik gaude. Izan ere, badakigu, adibidez, Agorrosingo kirol campuseko parte hartzea oso ona ari dela izaten.

Jaietako jaioberrien argazkia eska daiteke uztailaren 12ra arte

Uztailaren 12ra arte, bergararren arreta zerbitzuan eska daitezke 2018ko Pentekosteetatik 2019ko Pentekosteetara bitartean jaiotako ziren umei egindako ongietorri ekitaldiko argazkiak. San Pedro kalean ateratako talde argazkia eskuratzeko, gurasoek udaletxe-ko arreta zerbitzura joan beharko dute, eta bertan egin argazkia jasotzeko eskaera.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Antzerki zaletasuna gazte-gaztetatik lantzen

Jardunek eskaintzen dituen antzerki eskoletan izena eman dute Aratz Sotil eta Ane Beistegi gazteek. "Ahozotasuna landu eta sormenerako" gunea izateaz gain, "ondo pasatzeko" gunea ere badela diote bi gaztetxoek. Euren esperientzia kontatu dute

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA
Jardun Euskara Elkarteak antzerki eskolak eskaintzen ditu ikasturtean zehar. Jardunen ikuspuntutik "ahozotasuna eta hizkuntza lantzea da helburua", ahozotasuna landuz "hizkuntza aberastu eta erabilera bultzatzeko".

Jarduneko antzerki eskolak hiru mailatan banatzen dira: haurrena, gaztetxoena eta nagusiena. Horrez gain, 2016an sortutako Kokoxa antzerki taldea ere badute.

Metodologia parte-hartzailea

Tailerrak ikasturtean zehar eskaintzen dituzte: urritik ekainera bitartean. "Sormen-gune zabalak dira, diziplina ezberdinak lantzen dituzte. Antzerki eskolan egiten dituzten ariketak baliatzen dituzte ideiak hartzeko; eta, ondoren, antzezlana idazten dute, elkarren arteko iritzia errespetatuz irakaslea izanik bidelagun", azaldu du



Aratz Sotil eta Ane Beistegi gaztetxoak. a.e.

Jarduneko Maitane Arizabaletak. Metodologia parte-hartzailea da, "talde lana, elkartasuna eta hausnarketa" bultzatzen dituena.

Aratz Sotil eta Ane Beistegi gaztetxoak Jarduneko antzerki eskolan dabilta. Sotil urrian

hasi zen, eta Beistegi geroago, aurtengo martxoan: "Betidanik gustatu izan zait antzerkia eta Jardunek aukera hau eskaintzen zuela jakin nuenean izena eman nuen", dio Beistegik. Antzerki tailerlean "oso ondo" pasatzen

duela diote biek: "Ariketak egiten ditugu, jolas moduko batzuk, eta ondoren, antzezlana prestatzen dugu", dio Sotilek.

Izan ere, hori da ikasturtean zehar egin behar dutena: antzezlana sortzea. "Antzezlana sortzeko guztion hitza entzun eta errespetatu behar dugu", gaineratu du Sotilek. Aurten sortu duten antzezlana *Gazteluko abentura izugarriak* izan da; eta, hain zuzen, Koldo Eleizalde sariketan Interpretazio eta kontaketa sailean saritu dute. Superheroien eta bilauen istorioak jasotzen ditu lanak.

Antzerkitik telebistara

Sotilek eta Beistegik oholtza bakarrik ez, telebistako platoa ezagutzeko aukera ere izan dute: "ETBko *Handitzen, handitzen* programakoek *casting* bat egin zuten: galderak egin zizkiguten eta ondoren dantza bat egin nuen, nik sortutakoa", azaldu du Beistegik. Biak aukeratu zituzten programan parte hartzeko: Beistegik suhiltzaileei buruzko programan parte hartu zuen eta, Sotilek, hirutan: Guggenheim museoa, Maria Cristina Hotolean eta Ospitalean. Esperientzia "polita" izan dela diote biek, eta Sotilek nabarmendu du "grabazioak luzeak" izan zirela.

Datorren ikasturtean ere antzerki eskolan jarraitzeko asmoa dute, eta beste gaztetxo batzuk ere animatu nahi dituzte, "ondo" pasatuko dutela iritzita.

Urrian hasiko dute ikasturtea

Jarduneko antzerki eskolak urrian hasiko dituzte. Haurrena barikuetan egingo dute, 17:15etik 18:15era, Zabalotegi aretoan. Gaztetxoena ere barikuetan izango da, 18:15etik 19:15era: "Badago adin tarte bat antzerkian jarraitzeko gogoia eta ilusioa duena, baina bere lekua topatzen ez duena. Haurren taldean jarraitzeko helduak dira; izan ere, euren kezkek eta gaiak ulertzeko eta jorrazteko modua beste batzuk dira", dio Amaia Arriaran antzerki irakasleak. Horregatik sortu nahi dute gaztetxoena taldea —DBHkoei zuzendutakoa—. Helduen eskola, hasi berriei zuzendutakoa, martitzenetan izango da: 19:30etik 21:00etara. Kokoxa antzerki taldeak astelehenetan entseatzeko du. Izena eman nahi duenak jardunkultura@topagunea.com helbidera idatzi beharko du, edo 943 76 36 61/ 605 71 24 69 zenbakietara deitu.



JULEN ALBERDI

Orfeoia, azken entseguetan

Etzi, domeka, Bergarako Orfeoia *This is W. Mozart* kontzertua eskainiko du San Pedro parrokiari, 19:00etan. Mozart goraiatzea da helburua, eta, horretarako, konpositore handiaren hiru obra sinfoniko aukeratu dituzte: *Eine kleine Nachtmusik G major*, *Missa C major* eta *Vesperae solennes de Confessore*. Sarrerak 10 eurotan daude salgai.

"Eskerrik asko, Alfredo"

Alfredo Gonzalez Chirlaqueren azken kontzertua izan zen zapatukoa. Bergarako musika talde asko izan zituen alboan Chirlaquek, eta guztien "esker ona" jaso zuen zuzendariak. Chirlaquek hainbeste maite duen Morriconeren musika izan zen protagonista eta amaiera gogoangarria izan zuen ekitaldiak, Queen taldearen *The Show must go on* abestiarekin.



IMANOL SORIANO

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Oñalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Arexabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Eigeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 76 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

KIROPRAKTIKA ZENTROA

JULEN MURUAMENDIARAZ KIROPRAKTIKA ZENTROA

Bergara / Ibargarai 41 / 688 80 16 72

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Arexabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Arexabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Arexabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea

943 76 11 38 / 639 23 57 53.



Herriko dantzari taldea Herri Egunean, Jacinto Rivas *Elgeta* trikitilariari egindako omenaldiaren ostean. AITOR AGIRIANO

Ez da umorerik falta Elgetan

Nork bere neurria hartuta, gustura ibili dira elgetarrak Ferixa Nagusiko jaietan. Mahaiaren bueltan, plazako erromerian edo kaleko jai giroan egin dute topo, eta herrikideekin batera egin dute festa. Biharamunik egon bada, pasata dago honezkero!

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA Eguneroko zereginak apur batez alboratu eta herritarrek kalean topo egiteko egunak izaten dira Ferixa Nagusiko jaiak. Horrela izan da aurten ere. 2019ko jaietan, gainera, bapo lagundu du eguraldiak.

Bazkariak, afariak, kontzertuak, askotariko ikuskizunak... umorea izan da nagusi jaietan, eta, horrekin batera, ongietorria jaso dute Elgetara iritsi berriak direnek. Alde batetik, jaietako zapia jaso dute jaiaberriek, eta, bestalde, Herri Eguneko soka dantzan parte hartzera deituak izan ziren azken hamabi hila-beteotan herrian erroldatu diren guztiak.

Omenaldia 'Elgeta' trikitilariari Ekitaldi asko eta askotarikoak izan dira jaietan, baina esanahi berezia izan du Herri Eguneko

euskal dantzen ostean Jacinto Rivas *Elgeta*-ri eskainitako ekitaldiak. "Ez gara profesionalak eta lehen aldia genuen, baina *Elgeta* etorri zitzaigun burura eta omenaldi txiki bat egitea erabaki genuen", adierazi du Garbiñe Sarasketak. "Jendea hasieratik zegoen zerbait egiteko prest, eta hori gauza handia da", gaineratu du Alicia Gartzia. "Gustura gaude emaitzarekin".

Herri bazkaria izango zen herritar gehien elkartu dituen ekitaldia. 562 lagunek jan zuten paella. Aurten, gainera, aukera beganoa ere egon da.

**PROTAGONISTA ASKO
IZAN DIRA JAIETAN,
BAINA BEREZIENA
JACINTO RIVAS
'ELGETA' IZAN DA**

Balorazioak jasotzeko egunak Hala, jaien inguruan herritarrek egiten duten balorazioa jaso gura du Udalak, eta galdetegi bat prestatu du horretarako. Hilaren 17ra arte dago betetzeko. Orriak eskura daude hainbat lekutan, eta Interneteko *Hirix* aplikazioaren bitartez ere bete daiteke. Udalbatzak martitzenean berretsiko du agintaldi berrirako jai batzordea. Aurreikuspena da batzorde hori uztaileko hirugarren astean elkarrekin, herritarrek bidalitako erantzunak aztertzeko eta amaitu berriak diren jaien balorazio ofiziala egiteko, besteak beste. Lehen balorazio bat eskatuta, Iraitz Lazkanok adierazi du positiboa dela. "Jaietan giro ona egon dela uste dugu. Horretan eguraldiak ere asko lagundu du. Antolatutako ekintzetan jende askok hartu du parte".



Elgetako jaietako Mozorro Eguna propio etorritako bikingo taldea. AITOR AGIRIANO



Aurreko eta egungo udal ordezkariak herritarren aurrean dantzan. AITOR AGIRIANO



Jaietan zapia jasotako jaiaberriak senitartekoeekin eta udal ordezkariekin. X. URZELAI



Athletic eta Real zaleak, domekan jokaturako partiduen ostean. INTXORTAKO LEHOIAK



Neska-mutikoen herri bazkaria, barikuan. G. ARIZMENDIARRIETA



Erretiratuen bazkaria, barikuan, Espaloian. AITOR AGIRIANO



Paella banaketa zapatuko herri bazkarian. AITOR AGIRIANO

Tio Teronen Semeak taldea *Festamentua* ikuskizuna egiten, barikuan. ELGETAKO UDALA

Mugi Panderoa taldea, erromeria egin ostean. MUGI PANDEROA



Idiak domekako Ferixa Nagusian. AITOR AGIRIANO

GORA ETA BEHERA



L.Z.L.

Soinu hobea du Elgetako organoak



Mantentze-lanak egin dizkiote. Sitsa zuen, eta tratamendua egin diote. Gainera, tutuak garbitu dizkiote eta harmonizatu eta afinatu egin dute. Antzematen zaiola dio Lorea Larrañagak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Agintaldiko lehen osoko bilkura, hilaren 9an

Elgetako udalbatza berriak martitzenean, hilak 9, egingo du agintaldiko lehenengo osoko bilkura 19:00etan. Hala, areto nagusiko mahaiaren bueltan elkartuko dira udalbatza osatzen duten bederatzi zinegotziak: EH Bildukoak sei eta EAJkoak hiru.

Ezohiko osoko bilkura izango da; izan ere, bertan erabaki behar direnak dira batzordeen eraketa eta bertan egongo diren ordezkarien izendapena, udalbatzarrak egiteko epea –hilean behin, bi hilean behin...– eta Elgetako Udalak beste erakundeetan eta elkarteetan izango dituen ordezkariak –Debagoieneko Mankomunitatea, Bideberrri, Uema...–.

Martitzenean, Euskaraldia batzordea, 20:00etan

Goiena komunitatea

Euskaraldia batzordea / ELGETA

2018ko abenduaren 3an amaitu zen Euskaraldiaren lehen ekitaldia, eta badator bigarrena. Bultzatzaileak hasita daude bigarren Euskaraldiko nondik norakoak aurkezten, eta jakinarazi dute laster zabalduko dutela herrien izen-emate epea. Elgetan berriro elkartu eta guztion artean erabakiko dugu 2019-2020ko Euskaraldian parte hartu nahi dugun. Hala, batzordea berresteko, batzar irekia egingo dugu. Martitzenean, hilak 9, izango da, Ozkarbi elkartearen, 20:00etan. Herriko erakunde, talde eta norbanako guztiak daude batzarrerera deituta.

OHARRAK

Uztailean, bisita bereziak Intxortako frontera

Eskainiko dituzte barikuetan –11:00etan eta 16:00etan– eta zapatuetan –11:00etan–. Asentziotik abiatuta, ordu eta erdi irauango dute. Aurretik eman behar da izena.

Udako ordutegia liburutegian

Irailaren 6ra arte ordutegia da: astelehenean 14:30etik 20:00etara eta martitzenetatik barikuetara 10:00etatik 13:00etara.

Mendi irteera Biriatu inguruan, hilaren 14an

Xoldogain eta Manddale igoko dituzte. Zabalik da izen-ematea. Bestetik, harpidetu, federatu zein aseguruia zabaltzeko aukera izango da martitzenean, 19:00etan, kultura etxean.



Ordezkeri antzuolarrak eta Irungoak, hango udaletxearen aurrean. ANTZUOLAKO ALARDEAREN ELKARTEA

Babesa eta elkartasuna alarde parekideari

Pasa den maiatzaren 30ean izan ziren Antzuolako Alardearen Elkarteko kideak eta udal ordezkariak Irunen. Alarde publikoari babesa emateaz gain, alarde inklusibo baten alde lan egiten duten herritarrei onespina eman gura izan zieten han

Maidar Arregi ANTZUOLA

Alardearen Batzordeak kalera-tu duen oharrak garbi dio alardearen biziraupenaren gakoa egungo gizartera egokitzea dela: "Herri baten kultura-ondarea osatzen dute adierazpen eta ospakizun tradizionalak. Alardeen kasuan, ez dira estatikoak eta aldaezinak; uneo uneko gizonak eta emakumeek partekatzen dituzten balioen arabera bilakatu eta aberastu egiten dira. Eta horrela irauten dute mendez mende". Hain zuzen ere, mezu hori zabaltzeko asmoz izan dira Alardearen Elkarteko kideak eta udal ordezkariak Irungo alarde parekidean. "Bertako errealitatea bertatik bertara ikusteko aukera izan genuen. Bertakoekin harremana erein dugu eta helburuak beteta etorri gara", azaldu du Lander Dominguezek, Mairuaren Alardeko buruzagiak. Antzuolarrak garbi dute 2009an Alardea berri-ruztatu zutenetik gakoa dela hura gizartera egokitzea. Irungo konpar-

tsako kideei ere horixe azaldu zieten. "Irunen ere alarde parekidea izatea denbora kontua dela uste dugu".

Modu naturalean eta gatazka gabe berri-ruztatu izana txalotu dute Irungo ordezkariak. "Gure alardea nola aberastu den eta aldaketak horren natural gertatu izana inbidiaz ikusten dute. Guk hilaren 20an etortzeko gonbidat-

pena egin diegu, eta gure kasuan nola izan diren aldaketak kontatzeko prest gaudela helarazi diegu", argitu du Dominguezek.

Badator Alardea

Eguna gerturatzen dabilela eta Dominguezek urduri dagoela aitortu du; baina aurrean, iaz ez bezala, disfrutatu egingo duela azpimarratu du.

Edurne Iturbe izango da kapitaina

Lehenengoz, Alardeak emakume kapitaina izango du. Erretiroa hartuko duen Jose Angel Arbulu Edurne Iturbek ordezkatu du. Iturbek danbor-jotzaile zein fusilari gisa parte hartu du 2009an Alardea berri-ruztatu zenetik. Aipatu behar da Mikel Bargielak eramango duela mairuaren segizioaren estandarte, Antonio Deogracias ordezkatzuz,



Edurne Iturbe. ALARDEAREN ELKARTEA



IMANOL SORIANO

Giro ederrean Lizarraga auzoan

San Martzial jaiek aurrean ez dute hutsik egin. Plater jaurtiketa, trikitalariak eta haurrentzako jolasak izan dira jaietako ekintza nabarmenetariko batzuk. Auzo bazkarian nahiz afarian ere jende mordo batu zen, giro ederra lagun zutela. Musika eta dantza egiteko aukera ere ez zuten galdu Lizarragako auzotarrek.



AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

176 haur udaleku irekietan

Uztailaren sartzearekin batera, hasi dira Antzuolako udalekuak. Uztailaren 18ra bitarte iraungo dute eta egun horietarako guztietarako askotariko jarduerak antolatu dituzte 17 hezitzailek. Guztira, Antzuolako 176 haurrek parte hartuko dute herriko udaleku irekietan. "Hezitzaileok gaztetxoiei entzuzko diegu eta denon artean erabakiko dugu zein ekintza egin".

Erretiratuen herri bazkarirako izena eman daiteke

Uztailaren 14an egingo da herriko erretiratuen bazkaria eskolako patioan, 14:15ean. Izena emateko egunak uztailaren 8a eta 9a dira, Landatxoeko egoitzan 16:00etatik 18:00etara. Prezioa 6 eurokoa da. Menua hauexekoa: Entremesak, barazki-menes-stra, masaila, postrea eta edariak. Bazkal ostean dantzaldiaz gozatzeko aukera izango da.

ZUZENKETA

Pasa den asteko GOIENA aldizkarian kaleratutako Eztalako aldagela berriak egiteko hitzarmenaren gaineko albisteari zuzenketa hau egin gura diogu: Eztalako futbol zelaian jarriko diren behin-behineko aldagelak ez dira soilik jarriko Gipuzkoako Futbol Federazioaren laguntzarekin.

Aldagela horiek jartzeko laguntza Antzuolako herrikoia den Goizper enpresak ere eman dio herriari.

"13 urterekin hasi nintzen trikiti irakasle"

EDURNE ITURBE TRIKITI IRAKASLEA

Urretxu-Zumarragako Secundino Esnaola Musika Eskolako zuzendaria eta irakaslea da Edurne Iturbe. Antzuolan, hamarkada bat pasatxo daramatza trikiti irakasle lanetan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Edurne Iturbe eskarmentudun eta ibilbide oparoa duen trikitilaria da. Secundino Esnaola Musika Eskolako irakasle eta zuzendaria da. Makina bat txapelketatan ibilia, Euskal Herriko txapela ere jantzitakoa da.

Hamarkada bat pasatxo Antzuolako ikasleei trikitia irakasten?

Orain dela 13-14 urte, Bergaran nengoen trikiti eskolak ematen. Ikasle gorakada zela-eta Zumarragara itzuli nintzen. Eta ohar-tu nintzen Antzuolako ikasleek Zumarragan eman zutela izena nirekin eskolak jasotzeko. Udalarekin berba egin eta lokala adostu genuen, eta gaur arte!

90eko boom hari eusten zaio?

Gorakadari eutsi zaio. Boladak dira; pil-pilean taldeak baldin badaude, lagundu egiten du. Trikiti munduan partitura mugatuak daude eta horrelako talde berriek errepertorioa eskaintzen dute. Oso aberasgarria da; irakasleondako arnasa da. **Gaur egun egiten diren fusioak zer iruditzen zaizkizu?**

Tradizionala mantendu behar da eta trikitia nondik datorren erakutsi behar zaie ikasleei. Bestetik, ondo iruditzen zaizkit fusioak. Aberasgarriak dira eta, gainera, funtzionatzen dute.



Edurne Iturbe, Goiena Komunikazio Taldearen egoitzan, Arrasaten. MAIDER ARREGI

"TRIKITI PARTITURAK MUGATUAK DIRA ETA TALDE BERRIAK OSO ABERASGARRIAK IZATEN DIRA"

Ibilbide oparoa duzu. Euskal Herriko txapeliduna ere bazara. Plazetan ere ibilia zara.

Ia 20 urteren ostean, berriro animatu naiz. Markinan jokatu den Euskal Herriko txapelketan hirugarren postua lortu dugu

aurten. Pieza berriak sortu ditugu; izan ere, nire filosofia da txapelketetan pieza berria jotzea. Asko hunkitu ginen, gainera. **Ikasleendako, zu txapelketetan ikustea motibagarria izango da.** Bai. Ikasleek taula gainean dauden aukerak ikustea ere polita da. Jakin dezatela beste esparru batzuk daudela eta trikitiak bide asko dituela.

Epaila lanetan jarraituko duzu?

Bai. Erritmoa, jarrera, kantua, panderoa, piezaren zailtasuna, soinua... dena hartzen dugu kon-tuan eta baloratzen dugu!



ARITZ KORTABARRIA

"Sufrituta", baina "oso gustura"

Sekulako esperientziarekin itzuli da Eulen taldeko Aritz Kortabarría txirrindularia. Euskadiko selekzioarekin Murtzian jokatu du 23 urtez azpiko Espainiako txapelketa: "Oso esperientzia ona izan da, gustura ibili ginen. Hasieran, ihesaldi handia izan zen eta karrera erabakita geratu zen; hortik aurrera, tropelean sufritu egin nuen, bero handia zegoen eta".



BEÑARDO KORTABARRIA

Ez aurrera, ez atzera, kateatuta

Pasa den asteko egubakoitz iluntzean, Elay enpresan kamioia kargatu eta GPSak adierazitako bidea jarraituta, ez aurrera eta ez atzera geratu ziren jatorri errumaniarreko bi langile Lizarragarako bidean: "Kale aldera egin beharrean okerreko bidea hartu, eta hortxe igaro dute gaua", adierazi du Beñardo Kortabarría alkateak. Domeka eguerdian libratu zen errepidea.

Ikasturte amaierako festa

Edurne Iturberen Antzuolako ikasleek kurtso amaierako entzunaldia eskaini zuten Olanan etxearen aurrealdean. "Urte osoan landu dutena erakutsi gura diegu gurasoei eta herritarrei, ezberdina da-eta gela barruan jotzea edo kanpora ateratzea", dio Iturbek. Hamarkada batean ikasle kopurua bikoiztu egin dela dio. Egun, 20 ikaslerekin dihardu lanean Iturbek.



Kurtso amaierako entzunaldia Olanan kanpoan. EDURNE ITURBE

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34



Ekainaren 27an egin zuen lehen osoko bilkura udalbatza berriak. I.A.

Hamahiru lan batzorde izango ditu agintaldiak

Agintaldi berriko batzordeak, batzordeburuak eta osoko bilkuren zein Tokiko Gobernu Batzordearen bileren maiztasuna eta bozeramaileen izendapena onartu zituen udalbatzak, besteak beste. Alderdi biek adostutako proposamenak izan ziren denak

Oihana Elorza OÑATI

Lan batzorde kopuruan, esaterako, aldaketa izan da. Aurreko agintaldian baino batzorde bat gehiago egongo da: hamahiru, guztira. "Lehen, batzorde batean sartzen ziren Hirigintza eta Zerbitzuak eta beste batean Ingurumena eta Landa Garapena, eta banaketa egitea pentsatu dugu. Orain, Hirigintza eta Ingurumenak batzorde propioa izango dute eta Zerbitzuak eta Landa Garapena bakarrean egongo dira", argitu du alkateak, Iزارo Elorzak.

Bileren maiztasunez dagokienez, alderdi bien artean adostu dute osoko bilkurak hileko azken egunen artean, 18:30ean, orain arte bezala. Tokiko Gobernu Batzordea, aldiz, egun guztietan batuko da: Elorza, Igartua, Zubizarreta, Olalde, Anton eta Oñate izango dira kideak, EH Bildukoak denak. Alderdi bietako bozeramaileak, berriz, izango dira Iزارo Elorza EH Bildukoa eta Ainhoa Galdos EAJkoa. Osoko bilkuretan, bestalde, udal

taldeek boto ponderatua izango dute aurrerantzean ere; hau da, EH Bilduk 10/17 eta EAJk 7/17.

Alkatearen soldata, liberatuen kopurua eta euren soldatak hurrengo osoko bilkuran onartuko dituzte. Bitartean, Mikel Biainen diru kopuru bera jasoko du Iزارo Elorzak. Baina erabaki ekonomiko batzuk hartu zituzten zinegozik: talde politikoek hilean diru

kopuru finko bat jasoko dute, 50,78 euro, eta bakoitzak duen zinegotzi kopuruaren arabera zati bat ere bai. Hori aldarora izango da: 707 euro batzordeburu bakoitzeko, 375 euro batzordeburu ez den zinegotziko eta 160,82 euro hileko zinegotzi liberatu bakoitzeko. Bozeramaileek adostuta, toki korporazioetako kideen asistentziak ez dira ordainduko.

Batzordeak eta batzordeburuak

- **Hirigintza** Iزارo Elorza
- **Zerbitzuak eta Landa Garapena** Bixente Urrutia
- **Partaidetza eta Garapen Komunitarioa** Anik Zubizarreta
- **Pertsonala eta Barne Antolamendua** Iزارo Elorza
- **Kultura** Iñaki Olalde
- **Ogasuna / Kontuen Batzorde Berezia** Xabier Igartua
- **Kirolak / Obren Jarraipen Batzorde Berezia** Maite Anton
- **Haurrak eta Gazteria** Iker Oñate
- **Ingurumena** Asier Iraeta
- **Ongizate Zerbitzuak** Susana Altuna
- **Euskara eta Hezkuntza** Alaitz Kortabarria
- **Sozioekonomia** Xabier Igartua
- **Berdintasuna** Iزارo Elorza

Umeen danborradan izena emateko epemuga hilaren 19a da

2010 eta 2011. urteetan jaiotako umeendako da deialdia eta online zein kultura etxean egin daiteke

O.E. OÑATI

Hamabi laguneko batzorde berri bat osatu da aurtengo umeen danborrada antolatzeko, eta dagoeneko zabaldu dute izen ematea. Bi bide jarri dituzte horretarako: batetik, online bidez eman daiteke izena, <https://forms.gle/Ey2suWF52RZJsJdEA> inkesta beteta. Bestetik, kultura etxean postontzi bat egongo da izena eman nahi duenak orria bete dezan. Izen-ematea zabalik dago eta azken eguna uztailaren 19a izango da.

2010 eta 2011. urteetan jaiotako umeendako da deialdia. Barrilak jotzen edo baserritar jantzita irtengo dira; zozketa bidez erabakiko da hori, betiko moduan. Zozketa uztailaren 23an izango da, Santa Anan, 18:00etan, eta umeak bakarrik joan ahal izango dira. Bertaratu ezin diren umeei, mezu elektronikoko bidez



Umeen danborrada kaleetan. GOIENA

jakinaraziko zaie zozketaren emaitza.

Umeen danborrada irailaren 21ean egingo da eta entsegu guztiak irailean izango dira; astean birritan entseatuko dute, hileko lehen hiru asteetan. Eltzian izango dira denak.

Parrokoa badoa

Jose Inazio Munilla gotzainak erabaki du Horazio Argarate izatea Oñatiko hurrengo parrokoa; egun, Arrasaten dago. Joxan Larrañagak parkinson gaitza du eta berak eskatu zion gotzainari parrokiako ardurak arintzea. Debakoa da Larrañaga, eta 2008ko irailean etorri zen Oñatira, duela ia hamaika urte. Irailean nora joango den uda ostean jakingo du.



GOIENA

Arrasateko The Potes taldeak joko du gaur Trianako jaietan

Asteburuan dira Triana auzoko jaiak. Gaurko kontzertuan, The Potes, Txua eta Javilaz taldeek joko dute eta bihar, Garila 26k eta Mugi Panderoak. Zapatu gauean, gainera, *photocall*-a egongo da; gau osoan. Txorimaloak, auzo bazkaria eta ohiko ur pistolen gerra ere egongo dira jaietan. Astotrasto gaur jaitsiko da, 19:00etan.

Topagunearekin jarraituko dute Hurretik jorratzen

Euskaltzaleen Topagunearekin batera jorratu du Udalak Hurretik egitasmoa azken bi urte hauetan, eta elkarte berarekin jarraituko du, ekaineko osoko bilkuran udalbatzak aho batez onartuta. Kontratu berriak bi urte iraungo du eta aurrekontua izango da 55.288 euro gehi BEZa. Material berria eta ekintzak sortzea da asmoa.

"Ez dago B planetarik, bakarra daukagu"

EKHINE ZUMETA IXUTU BEGIXAK TALDEKO KIDEA

Kontsumo jasangarriaren eredia bultzatu gura duen talde irekia da Ixutu Begixak eta jendeari planeta bakarria dugun kontzientzia piztea da duen helburu nagusia

Oihana Elortza OÑATI

Duela hiru bat aste lagun artean sortutako ekimena da Ixutu Begixak eta bizpahiru egunean ia 70 lagun batu dira taldera, herri ezberdinetakoak. Kideetako bat da Ekxhine Zumeta. Uste du gaiarekiko jakin-mina eta kezka badagoela, eta proiektua handitzen joango dela.

Nolakoa da Ixutu Begixak taldea eta zein helburu ditu?

Talde irekia da, herri ezberdinetako herritarrek parte hartzen duten ekimena. Kontsumo jasangarriaren eredia bultzatu gura du talde honek, eta hori ulertzen dugu hiru bide hauek hartuta: kontsumo lokala bultzatzea, herrian egin daitekeena; kontsumo horren inpaktu ambientalak kontuan hartzea; eta hirugarrena eta helburu nagusia da jendeari begiak irekitzea eta kontzientzia piztea dendara doanean aztertu dezan zer ari den erosten, nondik datorren hori edo zein inpaktu izan dezakeen erosketak horrek etxera eramaten duenean.

Nolakoa izan da sorrera?

Lagunen artean sortutako ideia izan da eta sare sozialen bidez, kasu honetan Whatsapp bitartez, egin da taldea. Bi egunean ia 70 lagun batu dira. Uste dut proiektua handitzen joango dela, eta beste bide batzuk ere hartuko ditugu honen zabalkundea egiteko; beste sare sozial batzuk erabilita, adibidez. Uda ostean, hala ere, badugu asmoa herrian hitzaldi edo aurkezpen bat egiteko proiektuaren berri emateko, gure helburua azaltzeko.

Diozu herria asko mugitu dela hiru aste hauetan. Nola?

Gaiarekiko kezka eta jakin-mina dago. Herria asko mugitu da tarte honetan. Maila ezberdinetan, gainera. Adibidez, liburutegiak guk eskatutako liburu batzuk ekarri ditu. Etxean erabiltzen dugun papera, sukaldetan zein komunetan, birziklatutako



Ekxhine Zumeta. O.E.

"UDA OSTEAN TALDEAREN AURKEZPENA EGINGO DUGU HELBURUAK AZALTZEKO"

paperean batzen duen linea bat badago eta Eroskik ekarri egin du guk eskatuta. Belar dendan arropak garbitzeko detergentea soltean ekarri dute, etxetik potea eraman eta han betetzeko. Hortzetako eskuila eta pasta naturalak ere ekarri dituzte herriko farmazia eta denda banatara. Ortuzabalakoekin hitz egin dugu eta baita artisau batzuekin ere... Jendeak beste herrialde edo toki batzuetan dauden ekimenen loturak bidaltzen ditu taldera, edo gaiarekin zerikusia duten albisteak edo argazkiak.

Ze ezaugarri ditu kontsumo jasangarriak, zuen ustez?

Kontsumo jasangarriaren eta lokalaren alde egiten duena, adibidez. Umeak eredu horren barruan hezi gura ditugu eta bost ezaugarri nagusi ditu. Errefusatu da lehena; ez hartu behar

ez duzunik, etxetik poltsak eta ontziak eramanda ez duzu dendakoen beharrik. Bigarrena da gutxitzea; inpaktu ambientalak sartzeko da hemen. Internetez erostea erraza da, baina urrutiko produktuak etxera ekartzeko badu eragina ingurugiroan. Garbiketarako ere mila produktu ditugu eta askok ingurugiroarendako arriskuak diren ikurra dute. Hirugarrena da gauzak berrerabiltzea. Laugarrena, konposta egitea. Eta bosgarrena, birziklatzea. Kontuan izan behar dugu ez dagoela B planetarik, bakarria daukagula. **Aitzakia edo egia da apustu hori garestiagoa dela?**

Ba, produktuen arabera. Gauza batzuk, agian, bai, eta militantzia hor dago. Baina, adibidez, soltean erosten direnak merkeagoak dira eta eskuz egindakoen artean ere sorpresak hartu ditugu.

Zenbatekoa da merkatuaren pisua?

Ikusi behar dugu beharrezko ikusten dugun zer sortu duen merkatuak. Ontziak garbitzeko xaboi distiratsua saltzen dute, esaterako. Badira xaboi merkeagoak eta naturalagoak ontziak berdin garbitzen dituztenak, nahiz eta distirarik ez atera.



Jendea berdegunean ekainean, Txantxiku saria jokatu zen egunean. O.E.

Berdegunetik hasiko dituzte kiroldegia handitzeko lanak

Abuztuak 1 hasiko dira Zubikoa handitu eta eraberritzeko obrak eta igerilekuen ondoko zelaia itxita egongo da

O.E. OÑATI

Datorren hilabeteetan, abuztuaren, hasiko dira Zubikoa kiroldegia handitzeko eta eraberritzeko lanak egiten. Kanpoko lanak egingo dituzte lehenengo eta igerilekuen ondoko berdegunetik hasiko dituzte. Abuztutik aurrera, beraz, berdegunea ez da erabilgarri egongo. Igerilekua datorren urtean itxiko dute, abendura arte zabalik egongo da eremu bustia, baina ondoko zelaia, itxita.

Hamazazpi hilabete

Ekaineko osoko bilkuran egin zuen publiko lehen faseko lanen esleipena udalbatzak: 6.050.000 euro, BEZa kanpo. Gainerako exekuzio epea, berriz, hamazazpi hilabetekoa izango da. Miguel Imaz enpresaren eskaintza aukeratu dute aurkeztutako lauren artean obra zibila egiteko -3.912.350 euro gehi BEZa-. Gai-

nerako esleipenak gremio ezberdinetako enpresei egin zaizkie.

Obren lehen fase honetan, aldatu egingo da beheko solairuko distribuzioa. Sarrera ez da egungoa izango, bulegoak behean egongo dira, aldagelak eta rokodromoa berriak izango dira, gimnasioa ere handiagoa egingo dute eta igerilekuen azpian hiru gela egokituko dituzte kirol ezberdinak egiteko. Igerileku handiak bederatzi kale izango ditu eta txikia ere egungoa baino handiagoa izango da. Eremu bustian, berriz, 100 bat lagun sartzeko moduko harmailak egingo dituzte.

Igerilekuko lanak 2020an egingo dituzte eta urritik abendura bitartean igeriketa ikastaroak eta ur ekintzak egin ahal izango dituzte. Horieta izen ematea uztailaren 15etik 19ra eta irailaren 11tik 14ra izango da, kiroldegiko bulegoan.

Auto gidarien zaindaria

Gidariak eta auto tailerretako langileek euren zaindariaren eguna ospatuko dute eguaztanean; uztailaren 10ean da San Kristobal eguna. 18:30ean joango dira Olabarrietako Santutxura santuaren bila eta ilaran jaitsiko dira autoak kalera, lorez apainduta. 19:30ean dute meza parrokiaren eta ibilgailuen bedeinkazioa ondoren. Gero, Etxe Aundira joango dira afaltzera.





Arantzazu Saizek, Joseba Loinazek eta Hasier Oleagak osatzen dute hirukotea. IÑIGO ROLLO

Kontzertu instrumentala Lazarragako lorategian

Arantzazu Saiz oñatiarrak kontzertua eskainiko du hilaren 10ean Lazarraga lorategian, Hasier Oleaga eta Joseba Loinazekin batera. 'Bidean' lana aurkeztu berri du hirukoteak, eta, hain zuzen, disko horren emanaldia izango da, 19:00etan

Maialen Regueiro OÑATI

Arantzazu Saiz oñatiarra, Hasier Oleaga bilbotarra eta Joseba Loinaz pasaitarra 2017an elkar-tu ziren hirukotea osatzeko, eta eguaztenean, Donostian aurkeztu zuten *Bidean* izeneko lehen lana. Hirukoteak lehen diskoa aurkeztearekin batera, kontzertua eskainiko du, *Kalean* ekimenaren baitan. Emanaldia hilaren 10ean izango da, Lazarragako lorategian, 19:00etan.

Esperientzia musikala

Hirukotea sortu badute ere, Saizek, Oleagak eta Loinazek badute banakako esperientzia musikala. Saiz hezkuntza klasiko sendoko piano-jolea da eta Aguraingo musika eskolan piano irakaslea da gaur egun. Oleaga musika klasikoan hazitako bateria-jolea da eta egun, Ruper Ordorikaren Mugalari taldearen partaide da. Loinaz pianista gisa aritu izan da eta baxua ere jotzen du; gaur egun, Lazkaoko musika eskolako piano irakaslea da.

'Bidean' lana

Otsailean hasi ziren lanaren grabazio lanak egiten, Beasainen, eta eguaztenean, Donostian aurkeztu zuten *Bidean* diskoa. Lana zortzi kantuz osatuta dago, guztiak instrumentalak –pianoa, baxua eta bateria dira erabiltzen dituzten instrumentuak–, eta Saizek sortutakoak dira; bere ibilbide musikala laburbiltzen dute. Era horretan, Saizek lanaren estiloari buruzko xehetasunak aipatu ditu: "Ez da jazz disko bat. Baditu estilo horretako doinuak, baina popa ere sartu dugu. Oso melodikoa da, eta aberatsa erritmoari dagokionez. Harmonia aldetik, berriz, akorde ezagunak ditu".

PIANO, BAXUA ETA BATERIA UZTARTUZ ESKAINIKO DUTE EGUAZTENEN KONTZERTUA

Emanaldia

Saizek, Oleagak eta Loinazek emanaldia eskainiko dute hilaren 10ean Lazarragako lorategian, eta Saizendako, oñatiarra izanik, berezia izango da etxean emanngo duen kontzertua: "Gure kontzertua Lazarragan eskaintzea aproposa iruditzen zait, eta, niretzat, emanaldi berezia izango da, etxean joko dudalako, baina baita lekuak xarma duela iruditzen zaidalako. Hasiera batean, Santa Ana aretoan izatea pentsatu nuen, baina Udalak Lazarragan egitea proposatu zidan eta egokiagoa iruditu zitzaidan. Gainera, Udala eskertu nahi dut aukera hau emateagatik". Gainera, hirukoteak elkarrekin eskaintzen duen lehen kontzertua izango da.

Gasteizko Jazzaldian

Hirukote honek beste emanaldi bat eskainiko du uztailearen 20an, Gasteizko Jazzaldiaren baitan, hiriburuko OM Cafe & Club tabernan.

Zine emanaldi aukera zabala Antixeneko 'Martizinema'-n

Uztaileko martitzenetarako bost zine emanaldi antolatuta ditu Antixena gaztetxeak; 22:00etan hasiko dira guztiak

M.R. OÑATI

Antixena gaztetxeak uztaileko egitaraua osatu du eta horietako bat *Martizinema* izango da; alegia, hilabeteak dituen bost martitzenetan –uztailak 2, 9, 16, 23 eta 30– zine emanaldi bakarra edota bikoitza izango da. Emanaldi guztiak ordu berean izango dira, 22:00etan, hain zuzen ere. Lehen hitzordua martitzenetan izan zen, non *Ataun Of The Dead* eta *Joxean's Hil Eben* pelikulak ikusi zituzten. Hurrengo hitzorduei dagokienez, *Napardeath*, *Life of Brian*, *Al-*

baniaren konkista eta *Pride* izango dira Antixenean ikusi ahal izango diren pelikulak.

Martizinema izango da, beraz, zinemari dagokion ekintza, baina hilabetean zehar honako hauek ere izango dira, Antixenak antolatuta: uztailearen 10ean, mendi irteera txondorgileen txabolen aztarnak ezagutzera; uztailearen 15ean, hizketaldia Maider Arregiren eskutik, Uxue Alberdiren *Kontrako ezarririk* liburuaren inguruan; eta uztailearen 16an eta 17an, arte jardunaldiak, besteak beste.

Rafa Aranburu: "Lopezate esperientzia polita izan da"

Alvaro Bermejok idatzitako *Lope de Aguirre* liburua gaur aurkeztuko dute, 19:00etan, zinema aretoan, eta bertan izango da, besteak beste, Lope de Agirreren itxura hartu duen Rafa Aranburu oñatiarra.

Aranbururentzat, esperientzia berria izan da, eta gustura aritu dela adierazi du: "Herritar baten proposamena izan zen, eta, as-

korik pentsatu gabe, aurrera egitea erabaki nuen". Esperientziari dagokionez, honako hau aipatu du Aranburu: "Loperen itxura hartzeko, bizarra utzi behar izan dut, eta hainbat egun eta tokitan izan gara argazkiak ateratzen. Honekin guztiarekin, argazki liburu bat ateratzeko aurrez egin behar den lana zein den konturatu naiz, baina polita izan da". Emaitzaz ere mintzatu da Aranburu: herritar gehienek, argazkiak ikusita, Lope gisa ezagutu ez dutela adierazi du.



IÑAZIO IRIZAR

Denboraldi amaierako afaria

Aloña Mendiko eskubalo sailak denboraldi amaierako afaria egin zuen ekainaren 28an, eta bertan, 2018-2019 denboraldian aritu diren kadete, gazte eta senior taldeetako jokalariek izan ziren.

Afariaren ostean, aipamenean txanda izan zen, eta taldekakoak zein banakakoak banatu zituzten.



11 BIDER 1.000 ESKER!

GOIENA TELEBISTAK 11.000 IKUS-ENTZULE DITU GIPUZKOAN ETA 6.000 DEBAGOIENEAN, EGUNERO, CIES AUDIENTZIEN NEURKETA-ETXEAK EMANDAKO DATUEN ARABERA.

ESKUALDEKO HIRUGARREN TELEBISTARIK IKUSIENA DA, ETB2REN (17.000) ETA ETB1EN (8.000) ONDOREN.

GAINERA, DEBAGOIENEAN, HAMAR HEDABIDE JARRAITUENEN ARTEAN DAGO GOIENA:

1: GOIENA ALDIZKARIA: 30.000 IRAKURLE ASTERO.

8: GOIENA.EUS: 7.000 BISITARI BAKAR EGUNERO.

9: GOIENA TELEBISTA: 11.000 IKUS-ENTZULE EGUNERO.

HORREGATIK GUZTIAGATIK, 11 BIDER 1.000 ESKER!

goiena™

Zu hemen zaude.

"Urte gutxian maila ona lortu dugu selekzioan"

IONE OIANGUREN ETA AINHOA SALILLAS BURDINOLA TALDEKO KIDEAK

LINEAKO HOCKEYA Galizian egon dira, euskal selekzioarekin Teknikazio Torneoa jokatzeko, eta hirugarren sailkatu dira, Andaluziari irabazi eta gero

Xabier Urzelai ARRASATE

Debagoienean lineako hockeya geroago eta indar handiagoa hartzen dabil. Debagoieneko bederatzi jokalariek euskal selekzioarekin jokatzeko izan dira asteburuan Galizian, horietako zazpi Burdinola taldekoak; emakumezkoetan hirugarren sailkatu dira, eta infantil mailan irabazi egin dute Teknikazio Torneoa, penaltietan Valentzia faboritoari gailenduta.

Zer moduz joan da asteburua?

Ainhoa Salillas: Oso ondo. Andaluziari irabazita lortu genuen hirugarren sailkatzea, baina, guztira, lau partidu jokatu ditugu. Galdu ditugun partiduetan ere taldea oso lehiakorra izan da, eta oso pozik bueltatu gara txapelketatik.

Diozue azken urteotan hockey selekzioak aurrerapauso handia eman duela.

Ione Oianguren: Gogoan dut duela urte gutxi zelan joaten nintzen selekzioarekin... Egurra ematen ziguten talde gehienek, baina hori aldatu egin da. Beste leku batzuetan lineako hockeya hemen baino askoz ezagunagoa da, kirol instalazio egokiak dituzte eta zaletasun handiagoa dago, baina hemen geroago eta jokalariek gehiago ditugu, eta mailak ere gora egin du.



Ainhoa Salillas eta Ione Oianguren. X.U.

Pena da euskal ligan bi talde baino ez zaudetela –emakumezkoen kategorian–.

A.S: Bai, egia esan, emozio gutxi izaten du ligak, Metropolitanokoak eta Burdinolakoak baino ez gaudelako. Hori horrela, Gaztela eta Leongo ligan jokatzeko dugu, eta hor zortzi talde gaude. Valladoliden, esaterako, bi talde daude, eta horietako bat indartsua da. Pena, liga horretan Metropolitanoko gu baino postu bat gorago sailkatu da; kar, kar. **Lehia polita duzue bi talde euskaldunek.**

I.O: Bai, oso ondo ezagutzen dugu elkar, baina euren esperientzia handiagoko taldea da. Pentsa, aurreko lehenengoz irabazi diegu partidu ofizial batean, eta sekulako poztasuna hartu genuen! Orain, berriz, euskal selekzioa bi taldeetako jokalariekin osatu dugu, eta oso harreman ona izan dugu, elkartu egin gara gehiago. **Geroago eta jarraitzaile gehiago ditu lineako hockeyak, baita gurean ere.**

I.O: Bai, halaxe da. Hainbat kategoriatan ditugu taldeak, eta ez da gazteendako kirol jardue-



Galizian selekzioarekin egon diren bailarako jokalariek. J.I. BERRAONDO

Euskal selekzioan egon direnak

Euskal selekzioan izan dira Burdinolako Maddi Delgado, Edurne Ormaetxea, Ione Oianguren, Itxaso Markiegi eta Ainhoa Salillas. Eta infantil mailan lehiatu dira Pello Gallastegi, Josu Otadui eta Pello Gallastegi –azken bi horiek, Metropolitanoko taldekoak–.

ra soilik, nagusiek ere taldetxoak sortu dute.

Egia da, baina, lehenago, ondo patinatzen ikasi beharra dagoela.

A.S: Bai, hockeyko *stick*-arekin –makila– eta *puck*-arekin –pilota moduan erabiltzen duten pastilla– praktikatzeko hasi aurretik, ezinbestekoa da ondo patinatzen ikastea.

Lineako hockeyan jokatzeko duzue; badu izotz hockeyarekin zerikusirik?

I.O: Nik azken urteotan izotz hockeyan jokatu dut, atezain, baina ez ninduen erabat betetzen, eta orain, jokalariek moduan nabiltzen. Garbi dago antzekotasun handia dutela, baina ez dira gauza bera; arauak ere ezberdinak dira. Gero, badago patin gaineko hockeya ere. Lineako hockeyan patinek lau gurrpil dituzte jarraian eta patin gaineko hockeyan, berriz, patinak

bestelakoak dira; horiek ere lau gurrpil dituzte, baina bi aurrean eta bi atzean. Ez dira gauza bera; hor ere bestelako arau-diarekin jokatzeko dute.

Babes asko jartzen dituzue?

A.S: Atezain moduan jokatu, derrigor; kar, kar. Egia da gurrpil-arekin ez dugula minik hartzen, atezainok babes mordo eramanen dugulako.

I.O: Nik, berriz, Galiziatik ubeldura bat baino gehiago ekarri dut. Besteak beste, andaluziarren kontra jokatu partidua intentsitate handikoa izan zen; kar, kar.

"METROPOLITANOKO ETA BURDINOLAKO JOKALARIOK OSATU DUGU SELEKZIOA, EDERTO IBILI GARA"

Arrasate Saria jokatu dute domekan, ibilbide berriarekin

TXIRRINDULARITZA Kadete mailako lasterketak Azkoagaingo igoeran du nobedade handiena

X.U ARRASATE


Kadete mailako egutegi mar-dulak Arrasaten izango du hurrengo geldialdia –30 lasterketa dituzte guztira–, oraingo domekan, Garibai etorbidean, 16:00etan. Hala, Arrasate Saria-

ren laugarren edizioa egongo da jokoan, eta bailarako klub guztiek ordezkariak izango dituzte irteera puntuan.

Hala, Dorletako Amako lagunak 59 kilometroko lasterketa prestatu dute, hainbat nobeda-

derekin. Halako kategorietako lasterketan normalean desnibel oso handiak ez dituzten mendateak sartu ohi dituzte. Arrasateko lasterketako beste edizio batzuetan, Kanpazarko mendateak izan du protagonismoa –Sara jatetxeko bidegurutzean hartzen zuten behar bidea–, eta mendate erabakigarria izan da, gainera.

Domekan, berriz, Aramaioko errepideek hartuko dute protagonismoa, lehenengo kilometroetan Zubillagatik eta Esko-



Tropela, iazko proban. GOIENA

riatzako Aingeru Guardatik itzulia egin eta gero ziklistek Arrasaterako bidea hartuko dute eta –31 kilometroa–. Handik joango dira Aramaiorantz –Olandixoko tuneletik–. Han, ziklistek lehenengoz igoko dute Azkoagain auzora –Mendiko saia egongo da hor, eta azkeneko Emakumeen Biran pasa dira hortik–, eta Untzillan, Suñarako bidea hartu eta, kontuz egin beharreko jaitsieraren ondoren, Gesalibartik Arrasatera joango dira (17:32).



Maurizia naiz kaleko dantza ikuskizuna eskainiko du Aukeran dantza taldeak Arrasaten, uztailaren 12an. DAVID HERRANZ



Leioako Travelling Brothers taldea Eskoriatzan izango da gaur. ALEX R. CRUZ

Kultura eskaintza zabala eta kaletarra udako hilabeteetan

Askotariko musika estiloetako kontzertuak, antzerkia, zirkua eta dantza saioak izango dira uztailan eta abuztuan Debagoienean; herri handiek dute eskaintza zabalena, gehienak udaletako kultura sailek antolatuta, tokian tokiko elkarteekin elkarlanean

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Ekaina bitartean, aterpean –askotariko aretoetan– antolatzen dituzte kultur emanaldiak Debagoieneko udaletako kultura sailek eta tokian tokiko beste-lako eragileek ere; uda sasoiari, baina, "kulturari atea zabaltzen diote" eta herriko txoko ezberdinak aire libreko areto bihurtzen dituzte.

'Arrasate Blues' eta gehiago

Herriko jai nagusiak bukatu bezain pronto hasten dira Udaleko Kultura Sailekoak herriko txokoetan kultura ekintzak programatzen. Kale antzerkiari eta dantzari egiten diete, bereziki, lekua Udazabalen, eta asteburu honetako eskaintza da horren adibide; baina musika emanaldirik ez da faltako, eta, horien

artean, Kalakan taldeak eta Alexandre Arkhintcheev-ek egingo duten kontzertu "eskulosiboa" nabarmendu dute.

Musika arloan, baina, aurtengo herrikuntza nagusia Ibai-Arte Merkatari eta Zerbitzu Elkartek Udalarekin elkarlanean antolatu duen Arrasate Blues jaialdia da. Atzo, eguena, estreinatu zuten, nahiz eta uztailaren 19tik 21era bitartean izango diren kontzertu gehienak. Guztira, hamahiru taldek joko dute –herrikoak eta kanpokoak– herriko zortzi tabernatan, eta, horrez gainera, Udaleren eskutik, Gasteizko Allnighters taldeak Herriko Plazan eskainiko duena.

Bergaran, abuztuan ere bai

Udaleko Kultura Sailaren eskutik, zuzeneko hamaika emanal-

di izango dira uztailan eta abuztuan; eskaintza aldetik eta baita publiko motari dagokionez ere, egitarauaren "aniztasuna" azpimarratu dute. 36.452 euroko aurrekontua du programak.

Uztaileko eguaztenak, bereziki, antzerkiaz gozatzeko egunak izango dira San Martin plazan; helduentzako zein haurrentzako aire libreko zinemaren txanda, berriz, martitzenetan Espoioan, eta, eguraldi txarra eginez gero, Seminarioko arkupeetan; eta, gaur hasita, Berumuga musika zikloko kontzertuak lau egubakoitzetan, 22:00etan.

Abuztuan ere izango da zer ikusi eta entzun: martitzenetan, zine emanaldiak eskainiko dituzte; eta horrez gain, magia ikuskizuna eta baita estilo askotariko hiru kontzertu ere.

Antzerki emanaldiak eguaztenetan

2010a ezker antolatzen du Aretxabaletako Udalak uztailan kale-antzerki zikloa. "Eusko Jaurilaritzak kale-antzerkia bultzatzeko dirulaguntzak atera zituen eta horien bitartez Debagoieneko hainbat herritan hasi ginen egitarauetan kale antzerki gehiago sartzen. Gaur egun ere harrera ona izaten dute, jende asko biltzen da eguazteneko".

Estilo ezberdinetako antzerki lanak ekartzen saiatzen direla dio Aretxabaletako Kultura teknikari Inma Miguelek: "Eskaintza zabala dago, eta ezberdinak ekartzen saiatzen gara; haurrentzako eta publiko familiararentzako, bereziki".

Aste honetan eskaini dute lehena, Trapu Zaharrak taldearen *Turistrendo* lana, eta beste hiru izango dira, hurrenez hurren: Dikothmia konpainiaren *Spazi...o*, Kresala euskal taldearen *Ikono-grafiak* eta Markeliñeren *Cheef nature*.

Oñatin, Kalean eta 'Bridges'

Udako kultura eskaintzan herriko musikariei tokia egiten saiatzen da Udaleko Kultura Saila; aurtene badira bertako musikariak eta baita nazioartekoak ere; kubatarrek eta Indiakoak, hain justu. Azken hori Residui Teatro Italiako taldearekin elkarlanean antolatu dutela kontatu du Kultura teknikari German Meabebazterretxeak: "Uztailaren 18tik 29ra bitartean, *Bridges* Nazioarteko Antzerki Egoitza egingo du Re-

MUSIKA, ANTZERKIA, ZIRKUA, ZINEMA, DANTZA ETA MAGIA SAIO UGARI KALEAN, UDA SASOIAN

sidui Teatrok Oñatin, eta herrialde askotako sortzaileak etorriko dira. Formakuntza saioak jasoko dituzte, batetik, baina herriko txoko ezberdinetan ikuskizunak eskainiko dituzte; Kalean egitarauan sartu dugun kontzertuaz gainera, herriko txoko ezberdinetan beste ikuskizun batzuk ere bai".

Bridges profesionalendako egoitza bada ere, ateak zabalik dituztela azaldu du Residui Teatroko kide Ilargi Zabaletak: "Herriarrek egin gura dugu azken ikuskizuna; hortaz, parte hartu gura dutenek dei dezatela 648 66 51 94 telefonora".

Herri txikietan, auzoko jaiak

Bestetik, auzoetako jai batzordeen eta bestelako elkarten eskutik ere ekitaldi asko izango dira.

Hamaikagarren Udazabal egitaraua

Ohiturari jarraituz, Monterron parkean Arrasate Musikaleko Big Band-ek egubakoitzean, ekainaren 28an, eskaini zuen emanaldiarekin zabaldu zuten aurtengo aire libreko kultura egitaraua, eta Jon Maia bertsolariak eta askotariko saltsetako perrexilak gidatzen duen Hezurbeltzak taldeak borobilduko dute, uztailearen 28an, Aldai parkean.

Udaleko Kultura Saileko buru Jon Garairen esanetan, "46.300 euro da aurtengo Udazabal programak duen aurrekontua, eta, sei kokagune ezberdinetan, bost diziplina artistikorekin gozatzeko aukera izango da". Aurreko aldietan moduan, ikuskizun gehienak erdigunean badira ere –Zaldibar frontoian, Biteri plazan, Monterron parkean eta Herriko Plazan–, Kultura

zinegotzi Juan Ramon Mendietak adierazi du aurtengo, bereziki, apustua egin dutela Udazabaleko eskaintza herriko beste auzo batzuetara ere gerturatzeko; hori horrela, Maiatzaren Bata plazan eta Aldai plazan ere izango da uztailean zerekin gozatu.

Guztientzako prestatutako ekintzak dira; 20:00etan hasita batzuk eta 22:30ean besteak, guztiak doan dira. Informazio gehiago, *Arrasate.eus* atarian.

Uztaileko egubakoitzetan, Berumuga

Bergarako Udalak Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin elkarlanean antolatzen duen Berumuga musika zikloa egonkortuta dago herrian, eta baita inguruko herrietako musikazaleen agendetan ere; hori horrela, musika beltza –blues, soul, funka, eta abar– oinarri duen baina bestelako estiloetara ere zabalik dagoen jaialdia aurtengo Espolira ekartzeko apustua egin dutela azaldu du Kultura teknika-

ri Maider Osak: "Urte asko darabagu antolatzen, eta, hain zuzen ere, publiko fidela du Berumugak. Taularen gainean dagoen taldea ezagutu edo ez, jende asko hurbiltzen da astero, badakielako kalitatezko emanaldiak izaten direla".

Horren harira, Espainiako Estatuko eta nazioarteko punta-puntako musikariak gonbidatu dituztela nabarmendu

du Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak Ubane Uzinek: "Joe Cocker ekarriko digu gogora gaurko emanaldiak; datorren astean, berriz, Cosmosoul taldeak nahasketa bitxia eskainiko du, soularen, funkaren, *world music* delakoaren eta fadoaren artekoa. Blues doinuak, baina rocketik lizentzia asko hartuta, hirugarrenean; eta jazz kontzertu dantzagarria, aldiz, azkeneko emanaldian".

Eskoriatzan, Errekan Gora jaialdia

Herriko jai nagusiak amaituta, uztailean eten egiten du Udaleko Kultura Sailak eskaintza, eta, hori ikusita, hutsunea betetzeko asmoarekin abiatu zuen Atxorrotx Kultura Elkartek Errekan Gora egitaraua orain dela hamabi urte. Udalarekin elkarlanean antolatzen dute, eta aurtengoak 13.000 euroko aurrekontua du. "Hasierako helburuekin jarraitzen dugu; hau

da, herriko txoko ezberdinetan, eta, bereziki, euskal artistei edo taldeei tokia eginda, publiko guztiarentzako emanaldiak eta doan eskaintzea", azaldu du Atxorrotx Kultura Elkarteko kide Edorta Barandiaranek.

Musika du Errekan Gora ekimenak ardatz nagusi, eta domekan estreinatuko duten sortan ere hala izango dela dio: "Orain dela urte batzuk gurean

izan zen Nafarroako Travelling Brothers taldea gonbidatu dugu berriz ere, sekulakoak dira! Haatik dantza taldea, uztailearen 12an, Bizkaiko Eskean Kristo hurrengo egubakoitzean, eta irailaren 14an bukatuko dugu, Petti-rekin".

Aurrera begira, ekitaldi kopurua handitu egin gura dute: "Esfortzu handia eskatzen digu elkarteari eta baita Udalarari ere; denbora bat hartuko dugu aztertzeko ea posible den".

Oñatin, Klean egitasmoa

Orain dela hamar urte hasi ziren Klean egitaraua antolatzen, nahiz eta aurrez ere aire librean ekitaldi solteak eskaini; honela dio Kultura teknikari German Meabebazterretxeak: "Hainbat ekintza antolatzen hasi ziren gaztelekutik orain dela 24 urte, Kultura Sailetik geroago beste hainbat ere proposatu genituen, eta ondoren sortu genuen Klean egitaraua; hau da,

herriko txoko ezberdinetan programatutako uztaile osorako egitarau zabalagoarekin".

15.000 euroko aurrekontua du aurtengoak, eta sei ekitaldi batzen ditu: bost kontzertu eta antzerki emanaldi bat. Ekainaren 28an abiatu zuten, Ganbara Faktoriak Arantzazun eskaini zuen kontzertuarekin, eta irailaren 1ean borobilduko dute, Hortz mugua konpainiaren *Jule*

izeneko kale-antzerkiarekin. "Iaz moduan, ikuskizunaren edo taldearen ezaugarriak kontuan hartuta, Lazarragako lorategian, San Lorentzoko ermitan eta Errementari plazan emanaldi bana prestatu dugu, eta, berrikuntza moduan, kontzertu ibiltari bat ere antolatu gura izan dugu; hori horrela, atzo, eguena, pintxo-poteoa zela aprobetxatuz, Broken Brothers Brass Band taldea erdiguneko kaleetan zehar ibili zen jotzen".

Goiena Klubaren txokoa

Hauek dira ekaineko irabazleak!

ARRASATEKO TRIKITIXA ESKOLAKO CDA
Juan Carlos Kortazar Uribesalga (Eskoriatza)

HARREMAN DENDAKO OTARREA
Arantxa Zeziaga Mondragon (Aretxabaleta)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK
Fernando Contreras Munilla (Bergara)
Jose Luis Ugalde Orobengoa (Arrasate)
Unai Bergaretxe Leibar (Arrasate)

EHZ FESTIBALERAKO SARRERAK (FACEBOOK)
Ainara Inuntziaga (Aramaio)
German Arriola (Aretxabaleta)

DRAGOI JANERAKO GONBIDAPENAK
Eduarne Cenciaga Mondragon (Arrasate)
Iker Arostegi Gallastegi (Arrasate)

ERREKI JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA
Unai Iñarra Lasa (Bergara)

LASA JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA
Ana Arturo Sukilbide (Oñati)

MAIALDE JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA
Alberto Moncayola Beain (Bergara)

MAUXKA JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA
Idurre Elorza Barbero (Oñati)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak. Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko txarteldagian. Sarrerak 3 hilabeteko epe mugatu dango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Auzotz Auzoa, OÑATI 943 08 20 00. Oculogegia. Astelehenerik igandera 10:00 - 17:00 (Auzotz doitu hitzordue egiteko) Herriaren denda eta Otarraie jasotzeko, jo zuzenean. Bazkide txartelarekin. Herriaren denda. Arrasateko Erroki hipermerkaturan duen denda. **Lehen saria jasotzeko,** besta GOIENA-ren egoitzara. Saria jasotzeko, **BAZKIDEAREN TXARTELA** erakutsi edota **BAZKIDE ZENBAKIA** jakitea eraman behar da GOIENA Otarora Lizenziaduna 31. Arrasate 943 25 05 05. Oculogegia: Astelehenerik eguerena: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

Irabazi bi lagunendako otordua

ETXE AUNDI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!
PARTE HARTZEA: UZTAILAREN 6RA ARTE

943 25 05 05  klub@goiena.eus

  **KLUBA Jatez**
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitez
2019ko uztailetik aurrera: 31€
Deitu: 943 25 05 05
klub@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Eguzkitsua. Jantzia. Berokuntzarekin. 669 66 54 99

Bergara. Barrenkalen bi logelako etxebizitza ematen da errentan. Guztiz berritua, berokuntzarekin eta jantzia. 649 56 34 92

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Ama-alabak gara eta etxebizitza edo logela bat behar dugu errentan. 611 07 91 50

Debagoiena. Etxebizitza behar dut errentan hartzeko. 602 15 67 71

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Umeak zaindu Bergaran. Bergaran, irailetik aurrera, umeak eskolara eramanez, eguerdian bazkaria eman eta etxeko lanak egiteko pertsona baten bila gabilta. Nahiago dugu, euskaraz dakien pertsona izatea. Epe luzearako, 4-5 urte, egun erdiko kontratua eskaintzen dugu. Telefonoa: 635 20 79 76

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Osasun teknikari, lehen sorospen eta Alzheimer gaixoak zaintzeko formazioa duen mutila zaintza lanetarako gertu. 688 89 96 46 (Fernando)

Arrasate eta Bergara. Asteazken zehar goizetan, orduka, edo asteburuetan nagusiak zaintzeko gertu nago. 695 12 06 79

Arrasate. Orduka garbiketari edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 634 07 99 70

Bergara. Neska arduratsua etxean bertan bizi izaten lan egiteko gertu. 643 59 08 11

Debagoiena. Asteburuetan etxean bertan bizi izaten edo astean zehar orduka lan egingo nuke. 659 90 85 13

Debagoiena. Asteburuetan eta arratsaldetan orduka lana egingo nuke. Nagusiak zaintzen edo beste edozein lan egiteko gertu nago. 631 40 36 31

Debagoiena. Emakumea astean zehar lan egiteko gertu. Nagusiak zaintzen edo bestelako lanak egiteko ere gertu. 632 87 92 34

Debagoiena. Emakumea gertu egun erdiz edo orduka lan egiteko. Telefonoa: 632 53 28 51

Debagoiena. Esperientzia duen neska gertu, ahal bada goizetan edo gauean, garbiketari egin eta nagusiak zaintzeko. 631 95 04 42

